

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Nikolas Alustiza Gabiria

*Gabiria,
Gipuzkoa
(1925-2018)*

Aurkibidea



Biografia



1925ean jaio zen Oñatibiaundi baserrian, Gabirian. Gurasoak gabiriarrak zituen: aita Oñatibiaundikoa eta ama Bekoetxekoa. Eskolan Gabirian ibili zen Albizturko gizon bat maisu zutela. 16 urterekin arotz lanbidea ikastera joan zen Ordiziako "Muebles Ordizia"ra; gero Pedro Esnaolarenean eta Urretxuko zerra batean aritu zen lanean. Zumarragan anaiarekin batera tailerra izan zuen. Gabiriako Pasiotarren etxean zegoen Edersol lantegian ere lan egin zuen mosaikoak egiten. 1976an Gabiriako ostatua hartu zuten. Antzerkigintza betidanik atsegin izan du eta Gabiriako taldean ibilia da. Donostiako Lorentzo Salaberria apaizaren gidaritzapean aritu ziren herrian eta herritik kanpo antzezlanak taularatzen.

Zintak

GAB-006

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2010-09-11
- **Iraupena:** 109 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Maiz, Aimar

Pasarteak

1. Beste bizitzakoei "etxekoanekoa"; gertueneko baserriari "aldekoa"

- **Erref:** GAB-006/001
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bere burua aurkezten du: izena, non eta noiz jaio zen, baserriaren izena... "Aldekoa", "auzokoa", "etxekoa" hitzei buruz hitz egiten du.

Transkripzioa

-Beno, hasteko esan behar dizkidazu zure izena eta abizenak.
-Nikolas Alustiza Gabiria.
-Eta, noiz jaio zifien, Nikolas?
-Milla beatzirehun eta hogeita bosteko iraillaren hogeta hirun.
-Non jaio zifien, Nikolas?
-Hementxe, Oñatibin. Esaten due hemen jaio nitzela, oain, ni ez nitzen gogoratu jaio nitzenen egunen baiño... hemen, hemen, hemen. Palazio hontan.
-Oñatibi Haundi?
-Oñatibi Haundi, bai.
-Hemen bizitza bat baiño gehiago ziren?
-Bai, bi bizitzakoa da. Beste aldetik dauke, hemen, Pavimentos Arrondo. Pavimentos Arrondo're hemen jaiotakok die horik, oain hor kamiñon ondon daukate etxe berri haundi hori eginda, han bizi die, baiño beste aldeko bizitzea horiña zan. Hemen jaiotakok die horik'e.
-Ta beste bizitzak zer izen du, Oñatibi Txiki?
-Hau da Oñatibi Haundi, e. Bizitza bat hemengoa, ta beste aldetik beste aldea, bi bizitza. Ta Oñatibi Txiki dau beste baserrie hortxe, ezkerren. Hori Oñatibi Txiki da. Guk beti horri, etxeik gertunenekoa nola dan, beti deittu izandu diu "aldekoa", "aldekoa". Aldekok esan nahi do bertan daola. Baiño, gaur ez deu geuk ebaltzen hitz hori e! Goorra da, e! Galtzen dijoakiu. Eta penagarrie da. Aldekoa. Eta beste bizitzakoi, Arrondonekoi, "etxekoane", "etxekoanekok", "etxekoanekok". Hori zan, beti hitz horik erabili dittuu. Ta gero, ba, izaten da ingurue, auzoa, auzotarrak, auzokok, gertueneko etxek izaten die ba, "auzoa", horri "auzoa" esaten zaio. Oaiñ'e auzoa asko ebaltzen da, "etxekoane" gutxi ibiltzen da, ta "aldekoa" re gutxi.
-Igoal "aldekoa" gutxiago "etxekoanekoa" baiño.
-Gutxigo, "aldekoa". "Etxekoanekoa", akordatuko zea, gehiagok esango zizuen.
-Nik ere hala ibiltzen det eta.
-Zuk'e ebaltzen dezu hori. Bai? Etxekoane. Baiño hori, aldekoa. Etxekoanekoa, lehendabiziko gertueneko etxea, bizitza. Ta hurrengo etxea, guretzako gertuenekoa, hori, Oñatibi Txiki, aldekoa.

2. Aita eta amona Oñatibia Haundi baserrian jaioak

- **Erref:** GAB-006/002
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:02:38. **Bukatu:** 00:04:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Bere baserriaren izena Oñatibia Haundi da, eta izena nondik datorren azaltzen du. Aita eta amona baserri horretan jaiotakoak ziren. Amandrea eta aitajauna esaten zitzaaien lehen aitona eta amonari Gabirian. Amonaren aita Itsasotik etorritakoa omen zen.</p>

Transkripzioa

-Eta, Nikolas, Oñatibi Haundi, nundik dator izen hori? Badu esplikazioren bat horrek, ezta?

-Nik ez dakit ba. Hemen Oñatibiak asko etorri die, hemen Urretxun dare hor Oñatibiak, famili batzuk zea daukete, esto... botika, farmazia dauke zea batek. Beste batek “clinica de esto, dental”, holokok dauzke. Ta horin aitte medikue zan, nik ondo ezautzen non, hemen askotan izandakoa hoi. Hoik oiartzundarrak zien, beak honea askotan etorri die, Oñatibiak die horik eta, hemengo jatorrie. Hori nundik datorren? Ez dakit ba. Hemen behintzat, etxe hau, nere gurasok, nere aitte hemen jaiotakoa zan, eta nere amona’re bai. Hemen guk “amona” esaten diu, baiño guk garai hartan “amandrea”. Hori aittu dezu? “Amandrea”.

-Hori Oñatikoa ez al da, “amandrea”, hitz hori?

-Guk hemen “amandrea” izan deu beti.

-Baiña Gabirian bai, ala zuek etxean?

-Gabirin ta hemen danen “amandrea” zan, bai. Gaur ya “amona” esaten da. Ta aittonaí aittejaune. Amandrea ta aittejaune. Ta ordun amandrea, nere amandrea, amona, hura zan hemen jaiotakoa, baiño aitte zon harek Itsasotik edo etorritakoa emen zon. Ama hemen jaiotakoa, Oñatibia. Oñatibin jaiotakoa ta apellidue, abizena emen zon Oñatibia, Teresa Oñatibia emen zan. Nere amonan ama. Oaiñ, baiño hori, nik eztakit ba, etxe hau behintzat besten batena zan...

3. Errenta ordaintzean egiten zuten ospakizuna

- **Erref:** GAB-006/003
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:04:31. **Bukatu:** 00:05:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Bere aita jaio zen garairako etxearen jabe zen familia, baina lehenago erreterero ziren. Etxeko erreterero zirenean, urte hasieran ospatu egiten zuten etxea beraiena zela urtebetean behintzat.</p>

Transkripzioa

-Zuek erretererok ziñeten?

-Erretererok emen zian. Nere aurrekok erretererok. Ni zeatzeako... Nere aitte jaiotzeako’re ia etxea bereganauta euko zuen, baiño herentzin utzitakoa, “herencia”, utzi emen zien. Zeati, lenau, karo, errentan zeren, ta urteko errentea ez zon /etzon/ asko izango beharbada, baiño behintzat patu ein behar izaten zan. Ta urten hure paatzen zuen garaien, esaerea, nik amandrei, amonai aittu izandu nion hori, kontu asko esaten zittun —pena earra bauket nik hari ez jaso gauza asko, joe, harek zezkin gauzak eta—, harek esaten zon ordun, urteko errenta hori ordaintzen zuen garaien, bi etxetako familik juntatu, eta een arrantxotxoa eitten omen zuen, urtebeteko etxea berriz beena zuela behintzat eta, poz horrekin. Hori aittu izandu nion. Eta gero eztakit ba nik ze urtetan izango zan, hau heredau zuen, hemen bizi zien bi etxetako famili, heredatuk.

4. Oñatirako bidea = Oñatibi?

- **Erref:** GAB-006/004
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:05:56. **Bukatu:** 00:07:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Oñatibi izena "Oñati bidea"tik datorren susmoa dauka Nikolasek. Gabiriatik Oñatira joateko beste bide bat erabiltzen dute, ordea, gaur egun. Bere aita egunero Legazpira lanera oinez joaten zen.</p>

Transkripzioa

-Baiño Oñatibi, nundik datorrela, lehenago aittatu didazu zeoze.
- Baiño nik Oñatibi...
-"Oñati bide" edo zeoze esan didazu, ezta?
-Nei pasiotarrak esan zien, "Bai, Oñatibi... Hori Oñatibia, Baiña hori izango da, horren izena etorriko da Oñati Bidea, Oñatiko bidea dalako". Hortik etorriko ote dan.
-Garai batean hemendik zen pasoa?
-Bai, hoixe, oain dala urtek. Hemendik esan dizut nola zan pasoa horko barria, Santa Marina, bakizu, zu hor eonda eongo zea Santa Marinan... Hemendi zan bide hori. Ta, ordun, hoi Santa Marinakoa, bai, beti hemendi ezautu deu, baiño Oñatia juteko hemendi bidea izango zan garai baten, baiño guk sekula ez deu hori erabili. Ni Oñatia oiñez junda nau hemendik e, sagarra saltzea, astokin, etxe hontatik. Baiño bide hortatik ez, hemendik Leazpirako bidea, Kamiño Zarra esaten diu guk, Leazpikok eta horik Camino Real esaten dioe, hor dau kamiñoa. Hortik luze xamar eitten da oiñez juteko, baiño hor zan ataju bat, zeatik hemendik, nere aitte zana're bai, Leazpira lanea juten zien Patrizio Etxeberria fabrikaa, eunero oiñez e, taka-taka hortik atajutik gora. Atagoiti bakizu nun daun?
-Bai.
-Ba Atagoitia irteten zuen hor, atajutik, Atagoititi geo horti behera. Ordun, Oñatia sagar saltzea juten giñen garaien bide horretati juten giñen. Atagoitia jun, Atagoiti Motxorro, ta Motxorrotik gero kamiñoa hartzen zendun, ta kamiñoz kamiño, taka, Udanatik behera ataju batzuk ein ta astokin sagar saltzea Oñatia. Beaje asko einda nao ni, e, hemendik.

5. Sagar motak eta haien berezitasunak

- **Erref:** GAB-006/005
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:07:43. **Bukatu:** 00:10:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Sagar urteak zirenean, sagarrak saltzera joaten zen Nikolas. Sagasti handiak eta sagar onak izaten ziren lehen. Lehen sagar mota asko egoten zen. Sagar mota bakoitzaren berezitasunak aipatzen ditu. Sagarrak hainbat

herrian saltzen zituzten lehen. Nikolasen ama ostiralero joaten zen Legazpira, eta sagarretatik lortutako diruarekin etxerako behar zituzten gauzak erosten zituen.

Transkripzioa

-Nikolas, esplikatu ditzazu banan-banan bakoitzak zer berezitasun zituzten sagar horiek? Errezila nolakoa da?

-Errezilla da sagarretan, nik esango nizuke, ba, errezille da erreta jateko, konpota einda jateko, eta bera gordiñik jateko're, baiño utzi ein behar zaio pixkat, bittu ta seittun goorregie izaten da gordiñik jateko. Baiño bere garaie etortzen zaio. Zeatik, sagarrak biltzen dia, udara atzenen, urrie, urriñ azkena, Santu Guztinetako, hortxe bittuta hor izaten dia. Ordun errezil sagarra eoten da, bittu berrin gordiñik ez dau, baiño erretzeko bai, konpota eitteko're bai, ta geo, menbrillu bezela dultzek eitteko ta. Errezil sagarra kategorikoa da. Ta, gero, lehen esan deana, gordiñik jateko ia otsaille, marso aldea eo. Hemen goiko zea hontan, hau goi hori holako altura baten dana beteta eukitzen gendun guk hemen saarez. Usai bat botatzen zuen... Saldu eitten zendun: Oñatia, Legazpira, Zumarraga, Ordizia... danea sagarra. Ordun, hortik. Sagarra eamaten zon, merkadua juten zana Leazpia, gure ama zana Legazpia, hure ostirelero juten zan astokin, hemendi aurea. Gaiñea gustatzen zikon gauzak ondo ta. Etxen behar zian gauzak eta hori dana beti Leazpitik ekartzen zittun. Ordun, sagarran diruk hartu ta etxen behar ziñuzen gauzak eta, han eosi, ta hola moldatzen zien. Ta hortako izaten zan hori.

6. Bergarara sagarrak saltzera joaten zirenekoa

- **Erref:** GAB-006/006
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:10:34. **Bukatu:** 00:12:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

Errezil sagarrak balio zuen gehien. Bergarara ere joandakoa da Nikolas sagarrak saltzera; hara sagar hobeak eramaten zituzten, han jende aberatsagoa baitzegoen. Bergarara oinez joaten ziren astoarekin, bide luzea izaten zen.

Transkripzioa

-Errezille esan dezu bat...

-Errezille, baiño zenbat klase zeren ordun. Lehen esan dizut ba? Errezille zan ia azkeneako gelditzen zan, hue sanoa. Diruik gehiena harek balio izaten zon. Gabon ingurue, sobretodo gabonetan ta, garai hartan, gose urtek'e bazian, eta postrek, konpota eitteko ta, izugarrizko zea izaten zan. Baita Bergara're junda nao ni sagar saltzea. Bi beaje ein nittula uste det. Baiño nere arreba ta horik askotan Bergara. Ta Bergaran sagarra beti hobexegoa eaman behar izaten zan hautza. Oñatin baiño diru gehiau hartzen zan, jendea dirudun gehiau zeon Bergaran garai hartan. Ai naiz esaten milla beatzirehun ta berrogei ta bat, berrogeita bi, horko kontuk ai naiz esaten.

-Bergarara nola joaten zineten?

-Oíñez, astokin. Hemendik horti aurea, camino real eo esaten dion hori kruzatu, eta juten giñen al cruce de esto, Bergara ta juteko kruzea badau han, Urretxutik...? Hautza. Hari garai hartan deitzen zitzaion Eliasenea, nik ez dakit nundik zeuken izen hori, baiño Eliesenea irten da. Hautza irten, ta geo handik kamiño, Deskargatik Antzuolatik Bergara. Beaje luzegoa Oñatikoa baiño hori.

-Aldiko zenbat sagar eamaten zenduen?

-Aston zenbat eamango ziñuzen. Bi xexto, bi xexto dezentek aston, ta geo erdin beste bat, esku-zextoa esaten zitzaiona, bere kirtenakin ta. Hemen badare oaindio. Hor eongo die. Halakoa erdin. Haikin astoa. Astok'e, batzuk astok onak bazien basarri batzutan. Nolako astoa zan. Asto txikie bazan indar gutxi ta, hemendik Bergara-ta jun ein behar zan. Baiño Bergaran sagar onakin dirue hartzen zan garai hartan.

7. Lehengo zuhaitzek, batere zaindu gabe, sagar onak ematen zituzten

- **Erref:** GAB-006/007
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:12:46. **Bukatu:** 00:15:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Hainbat fruta-arbola izaten zituzten etxean. Garai hartan ez zegoen zuhaitzak zaindu beharrik, onak ateratzen baitziren berez. 1935ean zuhaitzei botika botatzera etorri zen mutil bat Foru Aldunditik, baina ordurako sagarrak oso onak ziren. Sagar mota bakoitzaren zaporeari buruz hitz egiten du. Sagar gezak eta gaziak. Sagar geza sagardoa egiteko izaten zen.</p>

Transkripzioa

-Beste fruta-arbolak bazenduen?

-Bai. Fruta-arbolak? Oain guk eztauku frutaik, baiño. Aran garaien aranak, keiza garaien keizea, eta danetatik fruta.

-Zein ibiltzen zan fruta-arbolak zaintzen?

-Zaindu! Zaindu! Garai hartan ez zan zaitzen arbolaik, e. Nik ez dakit oain. Oain dana zaitzen ez bazu ez daukezu ezer. Sagarrak guk hemen, eta guk bezela gehiagok hemen hartzen zien sagarrak. Ni gogoratzen naiz urte baten, bai, tratatu bat eman zitzaiola. Treintaiseisko gerra hasi baiño urtebete lehenau izango zan. Diputaziok ipini zon zean bat, arbolai emateko jeneroa ekarri zon, ta ni gogoratzen naiz hemen mutil bat, baserriko mutil bat izendatu zuen, ta botika botatzeko tresna hori bizkarren hartu ta hemen nola ibili zan inguruko baserriak sail danai botatzen hori. Baiño gaiñantzen ez zitzaion ezer ematen arbolei, ez adarrik kendu're. Baiño ze sagarra izaten zan! Ez dakit ba nik hor zer gertatu dan.

-Gaur baiño komeri gutxigokin hazten ziela.

-Bai. Baiño jenero ona gaiñea. Ta gaiñea, esaten nizuna, zenbat sagar klase zeren. Gazilokea ere bazan, zuri-zurie. Gazilokea esaten zitzaion, ta gazi xamarra zan. Baiño bitzen zendun, ta ekartzen zendun ganbaraa, gora, ta gero handik bittu ta hillabete batea eo hue gordiñik jateko, bueno, mantekea bezelakoa izaten zan, zoragarrie. Txori sagarra, txori sagarra zan

gozoa, sagardoa eitteko ta ibiltzen zana, baiño jateko're ikeragarri gozoa. Txori sagarra. Mokotxoa; hori ia beranduagoko, mokotxoa, mokotea, hori zan goorragea, hori ia azkeneako izaten zan, baiño hue're ona izaten zan.

-Gozoa?

-Gozatzen zan gero're, baiño hain gozoa ez. Hori ia zien, esaten giñun, sagar "gezea", gozoi esaten zitzaion "gezea", eta beste esaten zitzaion "gazie". Gezea ta gazie. "Hori gezea dek", esango zizun, "hori sagar gezea dek, hau gazie dek". Gezea hori izaten zan jeneralmente sagardotako, sagardotako izaten zan hori.

8. Sagarrak saltzeko trikimailuak

- **Erref:** GAB-006/008
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:15:19. **Bukatu:** 00:18:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Jendeak etxean jateko erosten zuen sagarra. Sagarra orduan dozenaka saltzen zen. Sagarrak saltzean, onenak saski gainean jartzen zituzten; haiek saltzen zituztenean, ordea, okerragoak gelditzen ziren, eta orduan erostunekin tratua egin behar izaten zuten saldu nahi bazituzten.</p>

Transkripzioa

-Jenealen jendeak zertako erosten zun sagarra? Etxen jateko?

-Jateko, jateko.

-Erreta jaten zan o gordiñik?

-Gordiñik igoal. Mutikoxkorrek eta zeren lekun ez zeon /etzeon/ janik eta, handik emango zioen koxkorren bat eo, meindatzeko eo, ogie eo. Ogiik'e ez zan /etzan/ garai haitan ta! Jateko.

-Gogon daukezu ze prezio zun sagarrak ordun?

-Joe, nik ordun... Preziok... hoixe ez dittut ba nik ondo jaso, zenbat... Nik, esto... Klaro, dozenaka saltzen zan, dozenaka. Orduko mentalidadea, gaur kiloka eitten da, baiño ordun dozenaka, kiloka ez zan /etzan/. Guk beti dozenaka saltzen gendun sagarra. Ta, lehen esan dizut, bi xexto izaten zien, asta-zextok esaten zitzaion, xexto espezialak izaten zien astokin ibiltzeko, luze antxekok. Geo erdin, lehen esan diana, esku-xextoa esaten zitzaiona, hure. Sagarra, beti, hemen ama zanak eo, nik sekula ez saltzeko sagarrak jarri baiño, ama zana ta beste batzuk sagarra, hak jartzen zuen, xexton lehenengo azpin txiki xamarrek; geo pixkat haundixea; ta gaiñen, haundiñak. Ikusi zezala ona. Sagarra itxurazko ona nahi zona, hure beti goizago jungo zitzatzun erostea, eta harek, klaro, onenak eamaten zittun, paatu're bai, ta gero handik behera txikigok eoten zien ta komerik. "Bai, hori, prezio hori, onenak eaman dittu horrek. Hor txikigoa dau". Tratue ein behar izaten zendun. Tratue, buenoo. Ta, gero, Oñatin, hautza juten giñen ta, geo handik onea sobratzen bazazun ezin ba, nola ekarriko ziñuzen ba sagarrak atzea, lehen etxen sagarra besteik ez zenduken /etzenduken/ ta. Eta han andrak ibiltzen zien, beida beti, azkeneko zea horik, merkego emateko. Ta hala esaten ziuon oñatiarrak han ibiltzen zienak: "zematian, zematian". Ba, hainbesten. "Eeeee! Ez, eman beharko dezue /beharkozue/ merkego, hamabixak dia ta". Hamabik ziela ta, ia hamabik-

hamabittarditako bukatzen zan ba, merkaue, ta “hamabixak dia ta, eman beharkozue, merkeago, eman beharkozue”. Hala izaten zan. Beharko eman, geo, azkeneako. Hala izaten zan. Garai hartako kontuk horik zian. Ta, zuk esaten dezu /esatezu/, prezioa. Dozenaka izaten zan, ta ze sagar zan, nola zan. Ni akordatze naiz, aston lehen esan dittuan sagar horik hiru duro, hiru durotik, hor, o lau duroa bittarten, hola izango zan. Astokin junda hautza. Dirue zan garai hartan e, duro bat dirue zan ta. Zuk esango dezu, hiru durokati, aston eamanda, e? Hor ibiliko zan. Oaiñ, lehen esan deana, sagar onak baldin bazian, ba, haik, Gabon ingurun ta, haik dirue ondo. Garai hartako bizimoduako sagarrak asko salbatu giñuzen gu hemen. Sagarrakin, diru asko. Bo, asko, garai hartaako behintzat.

9. Etxeko abereak eta haien zereginak

- **Erref:** GAB-006/014
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:22:50. **Bukatu:** 00:25:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Lehen etxearen egitura nolakoa zen azaltzen du. Abere ugari zituzten: txerriak, oiloak, untxiak, astoa, behiak... Lehen behiak erabiltzen ziren lanerako, ez idiak. Behi haiek gogorrak izaten ziren, eta ez zuten esne askorik ematen.</p>

Transkripzioa

-Nolakoa zan etxea?

-Hau etxeordekoa da. Etxea, hori. Ba! Nolakoa izango zan ba? Neargarrie. Oain'e ez dao zean, baiño, ba! Oain behintzat arreglauta ta... hola. Neargarrie. Hor, hor eukitzen giñuzen, ukuillue hor zan, ta behiek, hiru behi, lau, hola. Lau, hiru. Badauket hemen gertatutakoa. Ta hau zan etxeordekoa, ta hemen eoten zien txerrie, txerritegie, txerrie, urteko txerrie, bat o bi o, gizenduta, zerbait etxekok jateko behar zendun garai haitan ta, txerri onak hazten zien hemen ordun, baserri danetan e! Jana're ematen zitzaiona sanoa zan, ta ona.

-Urte guztirako txerrikoa?

-Bai urte guztiako! Asko ez zeon jateik! Egunero... Hue jateko zenbat ba? Oain esaten due, "bai, txerrikoa ez da komeni, jateko ez da komeni!". Ez, ordun'e ez zan komeniko, baiño ordun iñoi ez zion gaitzik eitten, garai hartan. Eta... esango dizut... hemen, txerritegie, gero han atzea pasau gendun, baiño hementxe zan, hor, txerritegie. Oillok'e hemen eoten zien, konejuk'e bai, astoa're hemen eukitzen gendun, aska batzuk-eta hor lotuta. Gero, behien bat eo erosi ein behar izaten zendun. Klaro, zaharra kendu, berrie ekarri ein behar, zerbait eitteko. Zeatik, behiekin uztarrin'e... Idik, ia geroxeo, lehenau hemen nik ez non ezautu iriik. Gero bai, gerora, ze esango dizut ba nik, el año... berroeta bosten eo hola, ordun iriik, laneako iriik ekarri zien. Bestela, behiekin ein behar izaten zan hemen lana're, haik uztarrin lotu ta zeak eitteko... Ta, hortaako, klaro, gaur behiek esnea saltzeko ta, jende hortaeko ebaltzen dittu, o bestela haragitako eo, okelatako, gizentzeko. Baiño ordun laneako behar izaten zan behie, ta laneako behi hori pixkat gogor antzekoa behar izaten zan, ta harek esne gutxi ematen zun. Harek ez zon esneik ematen. Emango zizun ba zeoze bai, etxeko pasarea eitteko zerbait emango zizun.

10. Behiaren esnea eta astoaren egarria

- **Erref:** GAB-006/015
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:25:13. **Bukatu:** 00:28:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Behi berria ekartzean, 8 egun aparte egon behar izaten zuen. Corpus egun batean, ama eta anai-arrebak etxean zeudela, behiaren lanak egitera bidali zuten Nikolas; jetzi zuen esne guztia, baina, astoak edan zuen ezkutuan.</p>

Transkripzioa

Ta behi berrie ekarritakon, beti bildurre izaten zan, ba harekin gaitzen bat ekarri igoal eitten zendun. Berrie ekarri behar zendun noabait junda, tratantek esaten ziten, ibiltzen zien saltzen, ta haikin tratue ein ta behie ekarri ta, hola. Behintzat, behi bat nere anaiek ekarri zon berrie, akordatzen naiz gaiña nun. Ordun, behi hue aparte, zortzi bat egunen eo aparte euki behar zendun. Ta ukuillue han zeon, baiño behi hori, aparteko behi hori, hemen eoten zan. Corpus eun bat zan, akordatzen naiz, ez dakit

ze urte izango zan, ordun Corpus eune jai haundie izaten zan, buenol; ez zan lanik eitten, ta meza nausia jun ta eliza jun ta holakok. Behintzat egun hortan genden etxen ama, arreba —klaro, danak soltero—, arreba, ama ta nere arreba eta hiru anaie egun hortan etxen. Anaie zarrenak esan zian goizen, “hi, hik eintzek etxeordeko esto... —behi bakarra hemen eoten zan —, hik eitzak harren lanak. Jatxi zak, janak eman, ta... —azpik esaten zioen eittea, etzateko ta, garoa ta ipini ta, garbittu ta...— ipinitzek hari danak. Guk eingo zittuau hemen ikulluko lanak, beste anaiek eta biok”, eta “bale, ondo!”. Etorri naiz ni honea, hortxe, hor frigorifikoa daoneko inguru hortan o hor eongo zan behi hori. Ekarri baldea, ta jatxi non. Esne asko ez zon eukiko baiño, bazeuken esnea. Eta, nere ama zanak, Corpus egune nola zan, ba postren bat eo ein nahi zon esne harekin, egun hartan. Balden esnea, jatxi, ta utzi det hor, eskiñan, janak eman behiei ta, gero eamango nola sukaldea; janak eman, behiei bere etzateko ohia... bai, azpik ein, jarri ta, “bo, ein zittuat”. Jun naiz esnea hartzea, esnen tantonik ez. Milagroa hori da e! Esnen tantonik ez. Astoa eon aldamenen han, kateittik lotuta baiño, hure allau eitten hautza! Dana ean! Ean! Ean! Astok esnea ean? Nik ez nekin orduarte. Tanton bat utzi be. Eta hotsik’e bate etaa be ean zon harek. Dan-dana ean zian.

-Earki gerau zan hue!

-Jun naiz sukaldea. Eneee! Amak eta arrebak: “Hi, hi inuxente bat besteik ez haiz! Hori nola ein leikek? Nola ein leikek?”. Bi anaiek, haak parre eitten zien. “Ze eingo ba? Hak ean baldin badio?”. Astok ean zian esnek. Baiño astok esnea ean? Ikusi be ez non siñistuko. Ezta arrastoik’e, hotsik etaa be. Ikeragarri gustatzen zaio.

11. Ezkion Ama Birjina azaldu zenekoa

- **Erref:** GAB-006/018
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 00:29:34. **Bukatu:** 00:33:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Eskolan hasi zen garaian, Ezkioko Ama Birjina puri-purian zegoen. Jende asko etortzen zen, Ama Birjina azaldu zela sinetsita. Arratsaldean, eskolatik Ardantzara joaten ziren, Santiago azalduko zelakoan. Ardantzari harri bat zegoen. Kataluniatik autobusak etortzen ziren Ezkiora.</p>

Transkripzioa

-Ni eskolan hasi nitzen garaian, ez dakit ba, treintaitres, treintaicuatro, hor, Ezkioko Ama Birjiñe zeon ordun puri-purin. Ama Birjiña azaldu zan ba, hor, Ezkion? Huraxe zeon ordun. Zenbat jende etortzen zan horrea!

-Nola azaldu zan? Ze pasa zan hor? Historie badakizu?

-Bai, historie, historie... ba, hori, ni ez dakit, preautako gauzan bat izango zan. Hor, nik ezautu nittun, ezautuko ez nittun /enittun/ ba, Ezkion Bazterretxe esaten zioen etxea, hor bat, bi, hiru taberna o lau illaran bazien hor, garai hartan, ta gerogo’re; oain bate ez dau. Ta taberna batekok zien horik, ta bi mutiko, anai-arrebak, eta etxeen batea, haik eak ez det uste eukitzen zuenik, gaiñea, zerik, tabernea bai baiño ganaduik eta hola, ta han inguruko etxen batea, iluntzan eo ez dakit ba, esnetaa, handik ekarriko zuen esnea etxeako, haidi agertu omen zitzaiera, iluntzan baten, Ama Birjiña hori. Handik hasitakoa. Hola izan zan. Kriston... Hor jende pill

onak izaten zien, ni horrekin gogoratzen naiz. Milagrok´e ein behar zittuela ez dakit zer santuk eta ez dakit zer ta... Santiago´re, Santiago apostoloa´re, zaldi zurin gaiñen azaldu behar zola egun baten ta... Gu eskolan gebiltzen ordun, ta maixuk, jo, danak beste kontuik ez zan aitzen ta, atsalde baten, Gabiritik, eskolatio hemen ezkerraldeago dao puntu bat Ardantza esaten zitzaion lekue da, ta handik frente-frenten Ezkion ikusten zan lekue, Ama Birjiña horren toki hori. Ta atsalden, eskolatio maixukin, mutiko danak Ardantza, leku horta etorri, ta hor liburun batzuk hartu ta hor leitu ta ikixiko gendula, zeatik Santiago hori azaldu behar emen zola ta, gere begikin han beida, han noiz azalduko zan. Han ez zan ezen arrastoik azaldu, ta atzea etxea!

-Ardantzako hortan harrin bat edo zerbait dao?

-Bai, baiño ez det uste oain... etaa ein zuela uste det eta... Gabirira eaman zuen, han plaza ingurun, ta ez dakit nun daukien oain jarrita. Hor zan harri bat, bai. Oain plazan eongo da, Gabirin. Ardantza hortan zan hori bai. Hori Euxebiok o holakon batek esango zizun.

-Ez, irakurrita dauketelako.

-Irakurrita daukezu?

-Bai.

-Ardantza toki hortan baserrin bat zan, edo izen hori nundik zetorren?

-Ez dakit. Nik baserriik ez det ezautu hor. Beraxegon dare, Ardantzati beraxeo dare Zandatagoiti, bi bizitza die. Baiño Ardantzan hor basarriik izan danik sekula ez zat zeatu.

-Eta zuek handik egon ziñeten begira?

-Hautza jun ta handik eon giñan atsalde guztin beida, noiz azalduko Santiago hori, baiño ez zan azaldu. Oaindik etortzeko eongo da.

-Garai hartan fede handie egongo zan, gaiñera, holako gauzatako, ezta?

-Ene ba, ene ba! Ta hor, Kataluñatik eta, Bartzelona aldetik eta, ze jende pillá. Autobusek-eta, garai hartan pillak eoten zien hor. Hemengo etxetatik egunero juten zan jendea horrea e, atsalden e!

12. Ama Birjinarekin hitz egiten zuen neska

- **Erref:** GAB-006/020
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:34:42. **Bukatu:** 00:36:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Inguruko baserri bateko neskak Ama Birjina ikusten zuela esaten zuen. Neska hark Nikolasen anaiari esan zion sendatuko zela, baina ez zen ezer gertatu.</p>

Transkripzioa

-Hor zeon neskea, neska gaztea, ta harek´e ikusten zola...

-Eta nolakoa zala esaten zuen?

-Bai, batek ikusi zola, baiño ez zuen sekula ezen zealik... Ama Birjiñea han azaldu omen zala, hoi zala baiño... ba! Nolakoa zanik sekula ez zuen esaten. Ta, ordun, gure anai hori, nola zan hori... inbalido nola zeon, hue bere muleta horikin azkar ibiltzen zan, e! Joe... iditaa ta... Bea askotan jun zan hura Ezkiora, Ama Birjiña toki hortaa. Eta horrek, ikusten zola esaten zon horrek, ikusi ez dakit ze eitten zon, neska horrek esan ein zion egun baten, Ama Birjiñek esan ziola sendatuko zola nere anaie. "A bai?" Ta "bai",

ta egune ta danak izendauta. Lehen esan deana, egun hori allau zan, ta mutikoa, hure fin, bueno! Fedea ta, etxekok eta danak. Lehen esan dizut ba hemen eon zien pasiotarrak, oain fabrikea eo dau, geo alde ein zuen hemendik. Hor elizea, ta gu mezeta ta horrea juten giñen, parrokia jun bittartez, gora jun bittartez, gertugo ta horrea. Milagroa ein behar zion eun hortan, goizen jaiki, ta jun horrea, ta aitortu, ta jaune hartu, ta danak ein, ta zean, ta atsalden sendatuko zola ta hautza jun ta... Bai, sendau bai... bai, gero bai, sendau zon bai, hil ein zan ta.

13. Oiloz mozorrotutako sorginaren istorioa

- **Erref:** GAB-006/022
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:36:56. **Bukatu:** 00:40:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

<p>Amonak kontatutako istorioa kontatzen du. Amonaren anaia argaltzen ari zen eta ez zekiten zergatik. Ohea omen zen gaitza, eta koltxoia kendu eta erretzeko esan zioten; bidegurutze jakin batean erre behar zuen, ordea. Erre eta gaitza joan zen.</p>

Transkripzioa

-Zer istori zan hori? Zuri amonak kontatu zizun hori, ezta?

-Bai, bai, bai. Hori, istorie...

-Benetan gertatutakoa?

-Benetan gertautakoa hemen, etxe hontan.

-Baiño zuri amonak kontautakoa.

-Amonak kontatu zian nei hori. Ba, hemen... Oain ez dakit, amonan bean anaie zan, edo lehenaukotakon bat zan, mutil gaztea, ta hemen koartok eta, bai, nunbait koarton bat o zea bai, ta geo ganbaran lo ein behar. Ta mutil horrek ganbaran goien lo eitten emen zon. Ta, mutille, jateko gauza asko ez zuen izango, baiño ordun behintzat jango zuen, baiño oso flakatzen, oso flakatzen ai emen zan. Flakatu. Ia oso flakatzea etorri omen zan, ta ze eingo ote zuen, ta hau ta hori ta; meikuik'e nik ez dakit eongo zan ordun. Behintzat, ebanjeliok eo etaatzen zitzaiera eta Olaberrin behintzat, hautza jun eta han nik ez dakit apaize eo zerbait behintzat, hori, ipuie, sendatzeko ze ein behar zon, ta hau ta hori, ta holakok eta... Jun die behintzat, harrena, hautza jun die. Apaize izan behar zon, hori eitten zona. Ikusi zon garaien, mutille, esan emen zioen ordun, aber nun lo eitten zon mutil horrek. Zean, koltxoi zean bat, oillon lumakin eindakoa emen zan koltxoi hori, ta haren gaiñen eitten zola lo. Ba, han zeola gaitze, esan emen zioen. Ohian zeukela, han eongo zala, ta hura, koltxoi hura kendu eta erretzeko, baiño erretzeko bidegurutze baten. Ba, bide bat horrea, bestea horrea, bestea horrea... Ta bidegurutze hori hortxe, hor goien dau; lehen esan dizut ba, aldekoa hor daola, horrea juteko biden, hortxe, ta izena zon leku horrek Intxaurtxo. Hor zeon baserri hortaa, aldekoa juteko, ta beste bide xenda bat, gora, Korta jatetxea dau, Zuazola, hautza juteko. Hori auzokok, hor bidea. Bestea honea etortzeko. Ta hori bidegurutzea. Ta horrea eaman omen zuen, ta hor eman emen zioen su. Eta kandela bedeinkatukin noizik behin botatzeko tantonak su hortan, ta erretzeko. Ta han erre zuen garaien, luma arten zea bat, bitxo bat bezelako gauza raro bat azaldu omen zan, hola oilasko tipoko zean bat omen zan. Han salto

eitten omen zon gaiñea harek, salto eitten zola erretzen ai ziela, esaten zon, ta makillekin joz ta joz han erre zuela danak. Ta mutil hori handik sendau zala gero. Hori nik Garmendiai kontatu nion hori, Gabiriko Ostatu baten. Ta geo harek idatzi ein zon.

14. Eskolako maisu ona gerrara joan izanaren pena

- **Erref:** GAB-006/026
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:43:06. **Bukatu:** 00:45:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Eskolan Albizturko maisua izan zuen. Oso maisu ona zen hura; gerra iritsi zenean, soldadu eraman zuten, eta itzuli zenerako, Nikolasi pasa zitzaion eskolara joateko garaia. Neskak eta mutilak aparte egoten ziren. Gaztelaniaz gaizki moldatzen zen Nikolas.</p>

Transkripzioa

-Nikolas, eskolan esan duzu hemen Gabirian ibili zinela. Maisu, pasiotarrak ziren?

-Ez, ez. Maixue hemen, Albizturkoa. Ni harekin ibili nitzen, ta geroztik'e harek ein zittun hemen, ez dakit ba zenbat urte eingo zittun. Gero Eibarra jun zan, zeak eaman zuen Eibarra, Alfaa eaman zuen gero hor. Ona zan oso. Gero, jublatu ta Donostin bizi zan, ta hil zan. Andrea ere oaindio... Andrea hemengoa zon, gaiñea, hor baserri batekoa. Joan Mujika Iturrioz. Albizturkoa zan, maixu ona, jatorra zan. Baiño, geo ditzosozko gerra hura sartu zan ta soldadu eaman zuen hori gure eskolan gabiltzela. Ta gero han soldadu pasa zittun urtek, eta handik etorri, ta klaro, handik etorri zan garaien berriz'e hemen eman zon eskolea, baiño, gu eskoleik ikasi be hemen, lanea, garai hartan, hamahiru-hamalu urtekin, eskolea ikasi behar gendun garaien, ta geo eskolaik ikasi ez, hori pasau zikun.

-Neskak eta mutilak aparte?

-Aparte, bai. Nik aparte ezautu izan dittut beti. Been maestrea, neskak. Eskolak hemen zien, ba, oain daren eskolak. Etxea, oaingo etxea da, oain barrutik eta berrittuta daude. Baiño neskak beren aldetik, eta mutillek beste aldetik. Dana bete-bete einda, hoixe, horrea besteik ez zan juten. Egunero ezta jun'e ez giñen eitten, klaro, etxen beti izaten zan ba lana. Ta behin egun bat galtzen bazendun hurrengo egunen juteko gogo gutxi. Hala izaten zan gure eskolea, hori pasatzen da.

-Eta erderaz zer moduz moldatzen ziñen?

-Gaizki. Sekula ez det ikasi nik erderaz. Ta hori penagarrie da e! Eesango deu, euskerea ta, bai, ta hau ta... baiño, joe, erdere, erdere... zuek, gazte batek. Gaur ez, gaur aurrerapen haundik dare, ta gaur ikasi, baiño gure garaien... Ni soldadu jun nitzen garaien nik erderaz ez nekin. Ta zenbat sufritzen dezu, holako leku batea zoatzen garaien?

-Pixkat defenditzen jakinez gero, gutxiñez.

-Ezin orde defenditu! Zuk gogoan zenduken gauza bat, zure superiorai ta hango jendei esplikatze gaitasunik ez baldin badaukezu, ixilik tragau behar! Bakizu zer dan hori? Buenooo. Erderaz gaizki. Guk sekula hemen erderaik ez gendun. Guk beti hemen euskerea ebali deu hemen, beti, gaztek, gere lagunarten eta danen, euskerea.

15. Bainuetxea komentu bihurtu eta komentua lantegi

- **Erref:** GAB-006/027
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:45:35. **Bukatu:** 00:47:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Pasiotarrek bainuetxea erosi eta komentu bihurtu zuten. Bainuetxe zen bitartean, ur beltza (ur sufretsua) zegoen, oso dotorea zen. Gaur egun, lantegi bat dago bertan.</p>

Transkripzioa

-Hemen pasiotarrak egon zien baita, ezta?

-Bai, pasiotarrak eon zien. Geo hemendik Urretxura jun zien.

-Pasiotarrak zer zeuken etxeren bat hemen?

-Komentue, hemen. Baiñuetxea zan hori, geo hori erosi ein zuen.
 -Lehenbizi baiñuetxea zeon hor? Nun zegon?
 -Bai, bainuetxea. Hortxe dao. Oain ez da ikusten. Oain'e hor dao.
 -Gabiri ala Ormaiztegi zan hori?
 -Gabiri. Ormaztegin'e bazan e, Ormaztegin beste bat zan. Ormaztegin, han, zubie pasatzen dan azpin zan. Nik Ormaztegiko balnearioa funtzionatzen ikusi non nere denboran.
 -Gabirikoa ezautu zendun?
 -Ez, ez, ez. Gabirikoa nik ezautzeako pasiotarrak hartuta zeukien.
 -Zer izen zun baiñuetxe horrek?
 -"Baños de Gabiria" esaten zioen. "Baños de Gabiria".
 -Horko urak zer eukitzen zun, zer berezitasun zun?
 -Horko udek, oain'e hor badao, hor barrun itturrie, "agua sulfurosa". "Ur beltza" esaten diou guk, ur beltza. Arrautza ustelan gustoa eo eukitzen don ura da hori. Hori omen zan. Oaindi hor dao itturrie, baiño hori baiño gehio, beste batzukin nahastuta hola. Izugarrizko baiñuetxe elegantea emen zan hori e!
 -Gaur egunen zer dao, lantegin bat hor?
 -Bai, hor Edersal dao. Mosaiko txiki hori eitten due hor. Ni, neu'e ibili nitzen ni hor lanen.
 -Oseake, dotorea zan.
 -Izugarri, hor lokal batzuk... Ni pasiotarrai aittuta nau, ikaragarri. Garai haitan, ez dakit ze garai izango zan, ikaragarri dotorea zala. Onenetakoa zala.
 -Pasiotarrak egon zien, ordun, gero, hori erosita.
 -Bai. Hori erosi zuen. Badet nik hor, liburun bat bada, ze urtetan erosi zuen eta dana, zenbat diru pagatu zuen eta dana. Nik oain burun ez dauzkat. Pasiotarrak eon zian, bai.

16. Pasiotarrak Gabirian

- **Erref:** GAB-006/028
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:47:37. **Bukatu:** 00:49:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Pasiotarrek ikasleak ekartzen zituzten, beren kongregazioko fraide izan zitezen. Pasiotarrak euskaldunak ziren, nahiz eta hasieran kanpotarrak izan eta horregatik eztabaidak egon ziren herrian.</p>

Transkripzioa

-Pasiotarren berezitasuna zein zan? Pasiotarrak ze eitten zuen?
 -Pasiotarrak, ikaslek eukitzen zittuen, ekartzen zittuen, baiño been kongregazioako. Ekarri eta gero fraile segitzeko. Hori zan, hori hortako komentue zan. Hor ehun eta gehiago ikasle eoten zian, garai haitan. Danak ez zuen segiko, baiño askok hor ikasten zuen, gero mezea ematen zuten, eta bat Ameriketara, bestea ez dakit nora, hortik zabaldu zien danak. Hortarako izan zan hori.
 -Hemengok zien pasiotarrak?
 -Bai, euskaldunek zian. Aurreneko zean, hori martxan jartzeko ta, kanpokok'e izan behar zuen, ta eztabaidak-eta haundik ebaltzen zittuen. Liburu o rebista bat badet horren gaiñen, ta han nau ni leittuta. Eta,

ebaltzen emen zuen, ba, diferentzik kanpoko jendek, ta hau ta hori ta, urte txarrak pasau izango zittuen. Baiño gero behintzat hor asantau ta hor... nik asko ezautu dittu hemen. Hor pasatu dien frailek, asko; bizkaitarrak, eta nafarrak, ta Arabakok. Bizkaiti asko, ta Gipuzkoatik'e bai. Hemen pasau dienak.

17. Gabiriako parrokoaren eginkizunak

- **Erref:** GAB-006/030
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:49:29. **Bukatu:** 00:51:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Gabiriako elizan zeuden parrokoiei buruz eta haien eginkizunei buruz hitz egiten du.</p>

Transkripzioa

-Hemengo elizan pasiotarrak ematen zuen meza?

-Ez, hor apaize parrokoa eoten zan. Eske, garai hortan, ni esaten ai naizen garai hortan, hiru apaiz eoten zian hemen. Beno, hiru ez zian hemen eoten. Parrokoa eoten zan hor bertan, gero koajutorea esaten zitzaiona, bi tokatzen zitzaion, ta bat eitten zon pasiotarrak, eta bestea eitten zon, Santa Marinan zeon bestea ta. Baiño horik, Gabiriko parrokon mende eoten zien bi koajutore horik. Parrokoa izaten zan nagusi, ta hiru horik izaten zien. Ordun, igandetan e....

-Hemen ingurun zein zien: Aztirin, Gabirin, eta?

-Gero beran dao Alegi.

-Alegin ´e bazan ermitta?

-Alegin ´e badau, baiña Alegin dao Itsasoko parten, eliza ta hori. Barrion Gabirik´e badauke partea. Errekek ebagitzen do, harek banatzen dittu, ta errekez beste aldeti dau. Ordun, Itsasoko apaize eoten zan. Hola zien hemengo kontuk. Ta apaize, Aztirin eoten zana, ia kasi igandero etortzen zan handik Gabirira, mezea laguntzea, ta eittea. Han eman, ta hemen mezea ematea eo, igandero oiñez, hemendi pasatzen zien horik danak, hau zan bidea ta.

18. Eskola utzitakoan, "Muebles Ordiziara" lanera

- **Erref:** GAB-006/032
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:51:58. **Bukatu:** 00:53:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>13-14 urte zituenerako, eskola utzi zuen Nikolasek. 16 urte zituela, arotzeria ikastera joan zen Ordiziara. "Muebles Ordizian" hasi zen lanean; hara

nittun beste hiru urte eo. Ta gero hori gaizki zijon, itxi eo. Itxi ez zan ein, baiño...

-Ze lantegi zan hoi?

-Mosaikoa eitten do. Kristala zeatu, iho, iriñe ein kristala, ta horrekin eitten zan mosaiko txikie, ta laben erreta, irtetzen zon horrek, laben. Hori eitten zon. Gero izenez kanbiatu zioen ta berriz'e hor seitzen do oain'e, baiño apenas lan asko daukien eta ez dakit, igual ez do... Baiño gero, ba, ni horti, ba, jubilatatu in nitzen.

20. Gabiriako ostatua hartu bitarteko gorabeherak

- **Erref:** GAB-006/034
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:55:34. **Bukatu:** 00:59:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

<p>1976an Gabiriako ostatua hartu zuen, enkantean atera baitzen. Ostatua hartu bitarteko gorabeherak azaltzen ditu.</p>

Transkripzioa

-Gero, setentaiseis, hirurogeita seien, Gabiriko Ostatue hartu gendun. Hemen bizi giñen, ta Gabiriko Ostatue. Gabiriko Ostatue lehenau euki zuen horko famili batek, gero Beasaiñea jun zien, Iruin. Eta, ba, hor zeon Ostatue, baiño de mala muerte. Janik'e ez zioen hola iñoi asko ematen, ta edarie ta zean. Klaro, etxea-ta erosita zeuzkien Beasaiñen, baiño ez zien juten, zeati gurasok hemen eon nahi izaten zuen. Gero, gurasoa, aitte hil in zan, ta aitte hil zan garaien semek eta alabak eta horik, ba, ez zuen hor segi nahi, ama bizi zuen baiño. Utzi in ziuen horri. Hori herriko etxea da, herriko ostatue.

-Subastan ateratzen zan?

-Bai. Lehen'e subastan ateatzen zan. Ta hor bizi zienak subastan ateata zeukien. Baiño urte asko eaman zuen hor. Gero lege bat kanbiau zan Francon garaien hor, behintzat horrek urtek zemartzen, ta beak nahi izan balo hor segiko zon igual. Lege bat bazeon hor, ni ez naiz asko horrekin... ez dakit nola zan, baiño hola zan.. Baiño utzi ein zioen, dana dala. Lehenau antigualeko zean zeon, eta gero bi urten itxita eon zan, eta ein zittuen obrak, renobau ein zuen dana. Ordun zeon alkate, lehen esan dizut ba sagardotegie, Goia, hoi zan dentistea, zuk ez zendun ezautuko baiño, horrek dentistatzen ikaragarri lanak ein zittun, Pasaian ta. Izugarri. Etxen'e bai, hemen bertan, igandetan hemen aitzen zan etxen, igande goizetan-eta lanen. Ikaragarri lanak eitten zittun horrek. Ta hori zeon alkate, horik utzi zioen garaien. Bi urten, ordun, itxi, eta berrittu ein zuen dana, setentaiseisen. Horik utziko zioen setentaikuarto o hola. Bi urten itxi, eta dana berrittu in zuen. Gero, klaro, herriko etxea zan, ta klaro alkatek nahi zon, ba, famili bat, herriko famili bat hautzako, hori eamateko. Susbastaik eta holakoik, guk ez gendun subastaz hartu hori, ez giñen jun. Guk genduzken seme-alabak, lau alaba ta semea, gaztek, zaharrenak zenbat urte eukiko zittun ba? hamabost-hamaseien bat urte. Pelukera ikasten zabillen gaiñea, pelukera da Ordizin, pelukerie daukie, zaharrenak eta gaztenak, bik, calle Urdanetan. Hori zan zaharrena, ta bestek eskolatan

zebiltzen. Andrea, nere andrea da jostune izatez, ofizioz. Josten-eta eitten zon hemen. Zegamarra da, Zegamatik etorri zan honea. Ni makiña bat aldiz harrittu naiz, nere andrekin Zegamatik etorri ta hemen nola etsi zion. Eta hala, alkate hori, Goia hori etorri zikun, nola bukau zan zea hori, ta famili bat nahi zukela hautzako ona, ta guk gendukela, gaztek zetoze ta, hautza juteko. Nik “hi” esaten nion gaiña beai. Ni baiño lau urte zaharragoa zan. “Baiño ze? Gu nola jungo gaittuk ba? Ez zeukeau esperientzin arrastoik, tabernako lanak nola eitten dien. Nere andrea, sukaldaritzan bai, bazekik etxeko zea eitten, baiño jostune nola...”. “Bai, baiño, hi, hemengo gorabehera eitteko...”. Eske lehenau zerenak ez baizuen ezer eitten. Benga berriz’e ta, gehiao, kontzejalak’e bai, hor lagunek neuzken, ta “zuek daukezue horrutako moduko familie ta zuek etorri behar dezue” ta. Azkenen, behintzat, esan diu baietz, jungo giñela ba.

21. Gabiriako ostatuak urteekin lortutako arrakasta

- **Erref:** GAB-006/035
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:59:59. **Bukatu:** 01:03:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Ostatua ireki zutenean, hasiera gogorra izan bazen ere, lan asko egin zuten, jende asko etortzen baitzen. Euskara ikastera etortzen zen jendea ostatuan gelditzen zen. Ostatuan adiskide handiak egin izan dituzte. 20 urte egon ziren ostatuan lanean. Ostatuan bizi handia egoten zen festetan.</p>

Transkripzioa

-Hemendik, baserritik jun giñen gu Ostatua, ostatu esaten diu, ocho de agosto del setentaiseis. Eta hamabosten festak izaten die, ta zortzin jun giñen. A ze preparatiboa genduken guk festatan-eta ibiltzeko. Jun gea, behintzat, harutza. Bedeinkazioko eguneako ta preparau ta...

-Otorduk-eta ematen zittuzuen?

-Bueno, zenbat otordu eman deu guk gero, zenbat lan ein gendun geo guk hor? Increible zan, urte haietan, ze jendek euki giñuzen guk han. Ta ez euki esperientziik. Ez pentsa urte earrak pasau giñuzenik aurreneko zeak, e! gero bai, gero bai ia, umek hazten ai zien, ta andrekin esperientzie hartu zon ta...

-Bai, baiño hasiera hartan hutsetik hasita...

-Hemen? Guk hori hartu, ta hurrengo urten hemen, bi urtetan’e bai, donostiarrak etortzen zien hemen udan euskeraz ikastea, eta gure etxen jaten zuen. Lo eskolatan eitten zuen. Jende heldue, karrerako jendea, euskeraz ikastea, kajaorretan-eta lanen zeon jendea eta. Zenbat jende holoko.

-Baiña ean borondatez ala nunbaitetikan?

- Ean borondatez. Etortzen zien organizauta, ean maixukin ta. Baiño lekue nahi zuen, nahi zuen herri txikie, euskeraz ikasteko ta, euskeraz aitzen zan tokie. Ta hemen eoten zien.

-Eta zuek etxen eukitzen zittuzuen?

-Jana. Bazkarik eta otorduk gure etxen eitten zuen. Lo eitteko ez genduken,

lo eitteko eskolatan eitten zuen lo, eren literak o jarrita hor eitten zuen.
-Garai hartan Ostatua zen herrin zegon taberna bakarra?
-Bai, gaur'e hala da. Gaur'e hala dau, bakarra. Garai hartan hori zan bakarrik, bai. Baiño guk izugarrizko lanak ein giñuzen hor. Joee. Zenbat otordu eman gendun guk hor. Ta, gero, ze ezaupidek gaiñea eitten dittuzu batekin ta bestekin. Zenbat aldiz etortzen dien oaindik bakarren batzuk. Igandero etortzen zienak bazien hemen Zumarragako hiru matrimonio gaztek. Bat, Vitoriaa jun zan, andrea hil zan, oaindik Zumarragan-ta, haik esan'e eitten due, "joe, zenbat aldiz gustora eon gean hor". Hola. Hogei urte ein giñuzen hor. Bai. Ez gendun osatu hogei urte, gu agoztun sartu giñen, ta agoztuun hogei urte ein behar giñuzen agoztun zortzin, baiño irten gendun aurreko marson. Marsotik agoztua bittartekoa falta izan zikun hogei urtek justuk osatzeko. Hor eon giñan. Gero nei pena eman zian, ta nere andrei gehiau, hori uztek, baiño gure gaztek ez zuen nahi. Klaro, loturea're bada. Baiño, ooooo, hor ein zitteken lana.

22. San Roke eguneko giroa ostatuan

- **Erref:** GAB-006/036
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 01:03:03. **Bukatu:** 01:05:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Aisia » Taberna giroa
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Tabernarako dirua lortzeko, aurrezki kutxan mailegua eskatu zuten. Zerbitzari ona izan zuten 20 urtean. Festa-giroan jendeak xanpaina edaten zuen.</p>

Transkripzioa

-Herriari bizitasun haundie, gaiñera.
-Izugarrie. Garai hartako festatan ze jendek etortzen zien honutza, herri txiki batea... Desbordauta eoten zan hori San Roke Txiki egunen eta. Ze jendek! Lana ein? Ni harrittuta. Pentsaizu, guk diruik ez gendukan. Nola eukiko gendun ba, famili bat eta diruik ez eta. Klaro, holoko zea bat jartzeko behar dezu esku arten dirue. Kajaorrosen lehengusue neuken nik, Lucio Gabiria, hil zan, Zumarragan bizi zan. Eta hari esanda neon, "hi nik prestamoa ta", "bai, bai, hik eskau zak prestamoa, eta emango diau, eon lasai". Festak, esan dizut ba, zortzin sartu, ta hamabosten zien festak. Festa haetan ein gendun lana! Gero, kamarero bat'e oso ona, Legazpikoa, oñatiarra izatez, Legazpin fabrikan lana eitten zon, ta bea Legazpiko Bar Patxi o han zeon, ta artistea zan. Hure hogei urten etorri zan gure etxea fiestatan kamarero, ikaragarri balio zon harek. Festak eitten lana ein?
-Nolakoa zan giroa ordun tabernan? Gaurkoa bezalakoa ez zan izango, noski.
-Ordun txanpaiñe saltzen zan asko, behintzat. Txanpaiñe kantidadea hartzen zon jendek. Txanpaiñe, bai.
-Ze txanpain izaten zan?
-Txanpaiñe, Codorniu eo eozein marka. Baiño eoten zien Saint Peti esaten zioen botilla txikik. Horik kantidadea saltzen zan. Ta hori're bere alanbrekin-eta lotuta etortzen zan, askau ein behar zendun, atzapar hok danak dana odoletan jarritta, horik askatzen. Gero, botilla haundik, oraingo

botilla berdiñak.

-Gaur konbinatuk-eta edaten dien bezala, ordun zer zan, ardoa?

-Ardoa ta zea, esto, kokakolakin, zea bai, estooo, nola esaten zaio ba kokakola ta ardoi esaten zaion horri?

-Kalimotxoa?

-Kalimotxoa.

-Ordun ´e bazan kalimotxoa?

-Bazan kalimotxoa, bai. Baiño beste konbinazio zea horik ez zien hoinbeste. Txanpaiñe asko. Txanpaiñe, joe, baiño, pillak eaten zien. Ta dirue uzten zizun txanpain botilla batek. Oain festatan ez da txanpaiñik eaten; ordun? Bueno! harrigarrie!

23. Ostatuko ordutegia bezeroaren arabera

- **Erref:** GAB-006/037
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:05:29. **Bukatu:** 01:06:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Ostatuko ordutegiaz hitz egiten du. Gauetan lan egiten zuten, jangelan gehienbat. Askotan taberna itxi nahi, baina bezeroak joan arte zain egon behar izaten zuten.</p>

Transkripzioa

-Tabernako ordutegia zein izaten zan? Egunero egoten zineten gauetan ´e?

-Goizeko hiruek aldea arte eo, lauek aldea arte eo. Bai, gaue gehiena ordun ´e.

-Hori festatan. Eta festetatik kanpora gauetan ´e egoten zineten?

-Bai, bai, bai. Gauetan bai, eitten zan, bai. Klaro, herri txikitan gero, gauez ez dezu eitten barran hainbeste lanik ez dezu eitten ordun; ordun eitten dezu jangelan.

-Jokurako-ta egongo zan afizioa baita...

-Baita, bai, musen ta. Agoantau ein behar. Gaur ez da hola agoantatzen e! Gaur, komedorek-eta, hau ta hori pasatzen dienen, ras itxi ta fuera. "Hik hartu behar badittuk hemen hartuitzek zeak", baiño...

-Orduko premie egon bazan, gaur ´e egongo zien...

-Bueno, hoixe baietz. Zenbat ordu galdu gendun guk hor? Koadrillak, bertako jendea. Zerbait esaten baziezun txarra ziñen. Ni're askoz geo amorra einda zerbait esan eta "bai, hi holakoa izango haiz, bai!". Haek han segi, haidi beida eon zaitz han. Hurrengo egunen, igandea baldin bazan, goizen... Gaur hamaikatan eo hamabitan irikitzen dizue herriko ostatue. Guk goizeko zortzitardik beatzitako igandero han irikitzen gendun e! Saldea ta, gosarik eta, danak eitteko.

24. Antzerki-taldean sartu eta lehenengo pausoak

- **Erref:** GAB-006/040
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 01:07:13. **Bukatu:** 01:11:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

<p>Antzerkigintzan ibilitakoa da Nikolas. Lehenengo antzerkia 1949an egin zuten, soldadutzatik etorri berri zela. Antzerkigintzan zergatik sartu zen azaltzen du. Eskolako maisu izandakoa izan zuten antzerkiko maisua. Ehun dukat izan zen beren lehenengo obraren izena. Mutilek bakarrik hartu zuten parte aldi hartan. Antzerkia ikasteko, eskolan elkartzen ziren iluntzeetan. Gerora, antzezlan gehiago egin izan dituzte, neskek eta mutilek denek batera. Garoa antzezlanean Nikolas izan zen protagonista.</p>

Transkripzioa

-Zu antzerkigintzan ibili ziñen.

-Bai.

-Zer urtetan hasi ziñen antzerkigintzan?

-Beida, ni, lehendabiziko antzerkie guk hemen ein gendun... Cin...

-Cuarenta y ocho?

-Ez, ez. Cuarenta y ocho baiño geroxeo. Cuarenta y nueve? Ba, hor, hor, hor. Berroeta... bai. Hori esan dizu baten batek nik baiño segurogo.

-Bai, irakurrita dauket hemen Gabirin 48n izan zala lehenengo antzerkie.

-Berrogeita zortzie al zan? Balitteke. Ni soldaduskatik ordun etorri nitzen. Ni cuarenta y seisko kintea naiz. Ni jun nitzen, esto... ni soldaduskatik lizentziau nitzen berrogeta zortziko irailen, eta hurrengo urten eingo zan, cuarenta y nueve izango zan hemen lehendabiziko antzerkie. `Ehun Dukat´ ein gendun lehendabizikoa.

-Nolatan hasi ziñen antzerkigintzan?

-Hemen apaiz bat zeon, ordun parrokoa, Donostitik etorritakoa. Aurretik zeona, aurretik eon zana, kanbiau ein zittuen, eta hori etorri zan Donostitik, Donostiko San Bizenten zeon hori, hemen eon zana. Bizkaitarra zan bea izatez. Eta gaiñea politika gorabeherak'e bazien ordun, ta kastigu bezela're pixkat herri txikin batea uste det horreatik bialdu zuela. Oso jatorra zan. Dono Lorentzo Salaberria. Handik etorri zan. Hori zeon hemen apaiz. Horrek, eta gero lehen esan diana maixue, gure eskola maixue, Iturrioz, Albizturkoa, hure zan gero lan haundie ein zona. Apaiz hau hasi zan, lehendabiziko horrek erakutsi ziun, ta eskolan ein gendun guk lehenengo antzerkie, ta zan `Ehun Dukat´. Bere zea zan, Manuel Lekuona, Oiartzungo apaize, harek eindakoa zan hori. Oiartzungo zeon zeon einda, baiño oso ona zan. Mutilek bakarrik eitten zuen. Hue zan lehendabizi ein genduna.

-Mutilek bakarrik?

-Bai.

-Eta, antzerkia ikasteko non elkartzen zineten?

-Hantxe, eskolan, illuntzatan ta. Han. Ez zeon beste lekuik eta. Tokie bazeon, oain saloi parrokiara dan leku hortan, baiño tokie bai baiño gaizki.

-Eta, Nikolas, zeatik mutilek bakarrik?

-Bueno, hori mutilek bakarrik... Antzezlan hue hala zalako. Gero ein dittugu mistok alkarrekin, hoixe. Ta ze lanak? Ze obrak hemen ein die? Ez pentsatu e! `Garo Usaia´ bat, `Garo Usaia´ bat, Euskal Herriko bizitza guztie, baserriko bizimodu guztie erakusten dona, `Garoa´tik hartutako zera da, `Garoa´ nobelatik hartutakoa da. Izugarri ona, zoragarrie. Han protagonista izan nitzen ni, aurreneko aktore izan nitzen. Eta hogeitaka

lagunek genden.

-Zer ziñaten, danak edade igualtsukok?

-Bai, bai, bai. Danetakok. Tokatzen zan, ba, klaro, mutikok-eta lan ein beharrekok bazien, baiño neska eta mutil, ba, hor edade modutsu hortakok, neska eta mutillek.

25. Antzerki-taldearekin egindako zenbait antzezlan

- **Erref:** GAB-006/041
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 01:11:17. **Bukatu:** 01:12:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

<p>Antzerki-taldean egin zuten lehenengo lana Ehun dukat izan zen, eta, gerora, beste hainbat egin zituzten: Seme hondatzailea, Iparragirre, Bixente, Iziartxo, Garo-usaina, Ramuntxo...</p>

Transkripzioa

-Zein izan zan lehenengo egin zenduen obra?

-Horixe, Ehun Dukat hori. Esan dizut, ba? Mutillek bakarrik.

-Txilibitu ez al zan lehelena ein zenduena?

-Ez, ez. Lehenengo ein zana Ehun Dukat izango zan. Gero etorri zien beste horik, Txilibitu ta. Hori neskak eitten zuela uste det e. Txilibitu Miragarria edo ez dakit nola zan, e? Hola izango zan nolabait. Horik ez nittun nik ondo ezautzen. Baiño hemen asko ein dia zeak. Baiño nik neonek eindakok: hori, Ehun Dukat hori, gero hurrengo eingo gendun Seme Hondatzailea, Iparragirre're bai, Bixente're bai, Iziartxo're bai, ta gero Garo Usaia, ta gero Ramuntxo're ein zuen. Nik ez non Ramuntxo ein. Ramuntxo antzezlan latza da e! Ramuntxo, joe.

26. Antzerkietako zentsura

- **Erref:** GAB-006/042
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:12:18. **Bukatu:** 01:13:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Antzerkiak euskaraz izaten ziren eta ez zuten arazorik izaten, baimena bai baitzuten hartarako. Apaiza zorrotz xamarra zen neskak eta mutilak elkarrekin zebiltzalako antzerki-taldean: antzezlan batzuetan musu batzuk kendu egin behar zirela esaten zuen. Hala ere, antzerkia egiteko askatasun guztia izan zuten.</p>

Transkripzioa

-Nikolas, antzezlanak euskeraz. Euki zendutn arazon bat horrekin?

-Bueno, ez, arazoik ez gendun euki, ez gendun euki. Beno, klaro, gezurre're pixkan bat esan behar izaten zan, ta... Baimena bagenduken gauza horittako. Oain, eozar gauzatan'e ez zeon ibiltzeik. Apaize're hemen ordun gogor xamarra zeon; bueno, ez politika aldeti, baiño bestela, alkarrekin neska ta mutil ta eitteko ta kontu horrekin pixkat sartzen zana zan.

-Sekula debekatu zizuen antzerki obran bat eittea?

-E?

-Antzerkin bat ittea debekatu zizuen?

-Ez, ez, ez, ez. `Ramuntxo´ hortan, eztabaida batzuk, lehen esan dizuan apaizekin, zeati `Ramuntxo´ hortan, klaro, neskei o baten bati musu're eman behar zitzaioa, ta ezetz, hori kendu ein behar zitzaioa ta, holako huskeri batzuk bai, baiño gaiñantzen debekatu, ez ziun debekatu hemen antzerkie eitteik. Antzerkie eitten askatasun guztie izan gendun.

27. Apaiz berria, saloi berria

- **Erref:** GAB-006/043
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:13:29. **Bukatu:** 01:15:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

<p>Gabiriako eskolan egiten zituzten entseguak. Apaiz berria etorri zenean, saloi berria jarri zien antzerkirako. Hura inauguratzeko "Iziartxo" antzeztu zuten.</p>

Transkripzioa

-Jeneralen, nun eitten zenduen hemen Gabirin antzerkie itten zenduenen?

-Esan dizut, ba, eskolan. Baiño, gero, apaiz hori jun eta beste bat etorri zan. Ataungoa zan, gaztea. Nere edadekoa zan ordun, garai hartan. Gero irten in zon apaizgintzatik, ta ezkondu ein zan, ta hil zan, gaiñea. Lehen esan dizut tokie nola zeon, oain saloi parrokiara daon hortan, ta hori oso dezidittue zan, gaztea, etorri ta pin-pan hasi zan, ta han ein behar zala saloia. Bati hau ein, ta bestei hori ein, saloi berrie. Bueno, lekue han zeon, baiño berrie ein zan.

-Hori noiz izan zan? Zenbat urte zittuzun zuk hori in zanen?

-Nik hori jun zanen nik zenbat... Lehen esan dizut, cuarenta y nueve ingo gendula aurreneko antzerkie... cincuenta, cincuenta-cincuenta y uno hor ingurun. Akordetzen naiz, nola ein zan, bere eszenarioa ta, garai hartako zea, ta hue inauguratu zan garaian han ein gendun `Iziartxo´, zan antzezlan, hori neska ta mutil eindakoa zan. `Iziartxo´. Han ere bai, han'e aurreti nitzen.

28. Maisuak eman adore antzerkian sartzeko

- **Erref:** GAB-006/044
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:15:04. **Bukatu:** 01:16:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Irakurtzeko zaletasuna beti izan du, eta maisuak antzerkian hasteko animatu zuen. Antzezlanak handik eta hemendik ateratzen zituen maisuak.</p>

Transkripzioa

-Nundik etorri zitzaizun zuri hortako zaletasuna?

-Irakurtzea-ta asko gustau itten zitzaian, ta maixuk, “hik hau ein behar dek”, eta hola. Baiño nik baiño lan gehio indakok asko die hemen, Gabirin. Nik asko in non, baiño nik baiño gehiao indakok badie. Eta gero, lehen esan dizuana, ‘Garó Usaie’ hemen neretzako hori izango zan hemen in dan onenetakoa.

-Eta antzerki obra hoik nundik ekartzen zittuzuen? Berak ekartzen zizuen nunbaittetik?

-Maixue, esan dizut, ba, maixue? Horrek etaratzen zittun handi ta hemendik eta... Bera ikaragarri zalea zan. Asko balio izan zon. Gero, apaiz hori lehen esan deana, hue bialdu zuen... Bialdu... Bai, ordun bakoitze bere probintzitako zeak eta kanbiatzen zijon gauzak. Hure bizkaitarra zan ta bizkaitarrak Bizkaira, ta Gipuzkoakok Gipuzkoa. Hor jarri zien ordun. Ta hure Bizkaira jun zan. Ta ordun etorri zan lehen esan dean ataundar hori, gazte berri hori. Horrek ein zon gero hab saloia ta horik danak ein zittun. Bea ez zan hola, antzerkik eta eitteko, harek ez zon bate entenditzen, baiño “vía libre” uzten zon dana, e, dana libre. Harekin ez zeon zeaik, uuu, lasai. Ta, ordun, maixue gendun direktorea.

29. Antzezlanak ikasteko denbora eta emanaldiaren eguna

- **Erref:** GAB-006/045
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 01:16:30. **Bukatu:** 01:17:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

<p>Antzezlanak paperetik ikasten zituzten. Garó-usaina antzezlanak ikasteko, negu osoa pasa zuten. Gero, jende asko etortzen zen antzezlanak ikustera. Sarrera kobratu egiten zen, eta diru hura hobekuntzak egiteko erabiltzen zuten.</p>

Transkripzioa

-Papeletik ikasten zenduen?

-Papeletik dana.

-Eta zer jartzen zuen, izenez bakoitzak esan behar zuen pusketa?

-Bai.

-Zenbat denbora pasa zeikezuen antzerki obra bat ikasten?

-Joe, ‘Garó Usaie’, esan dizuan hori, negu osoa pasa gendun guk. Neguko igandetan, atsaldetan, zenbat aldiz juten giñen gu hautza, saloia orduako einda zeon, ta han, hotzak, berotasunik ez, hori ikastea. Pentsaizu nola. Neska ta mutil, han. Ta gero, illuntzan, ba, handik irten ta bokadillon bat jan ta, ta hola. Baiño ze artekin? Ta, geo eitten zan garaian zenbat jende etortzen zan kanpotik eta!

-Kanpotik etortzen zien?
 -Buenooo! Zumarraga aldetik eta, izugarrizko zea euki gendun guk ordun.
 -Eta, Nikolas, kanpotik etortzen zan jende horrek antzerkie ikusteatik zeoze ordaintzen zuen?
 -Bai, kobratzen zan. Hoixe. Bere entrada eukitzen zon.
 -Eta zuei dirurik ailegatzen zitzaizuen?
 -Baa, dirue... Guri aillatu, ez gastatzeko... zerbait zea eitteko. Beti zerbait erosi behar zendun, gauza horik eitteko ta, handik, beste iñundik ez zeon diruik eta. Diruik sekula ez deu guk hortik kobratu.

30. Antzezlanetarako atrezzoak

- **Erref:** GAB-006/046
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 01:17:39. **Bukatu:** 01:18:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Antzerkietarako atrezzoak Larrea familiaren baserritik lortzen zuten.</p>

Transkripzioa

-Jantzik-eta nundik ateratzen zittuzuen?
 -Jantzik, baserriko gorabeherak eta nola izaten zien... Geo, hemen etxe bat zeon, Larreaenea, gero haek gastau zien famili hura, ta geo Pavimentos Arrondo honek erosi zon etxe hori, ta horko bi seme bizi die han. Han zeon familie, Larrea hori, ta hoik eukitzen zuen lehenaoko gauzak. Buuu... Bueno! Etxen. Ikaragarrizko zea zan. Handi gauza asko, beti eamaten. Zoratzen eoten zien een gauzak eamateko. Zenbat gauza eamaten zien handio!? Mueblek ziela, o holako garaitako silloia zala, bestea zala. "Larreaeneti ekarriko deu". Handik eaman ta hola. Jantzik, berriz, orduko jazkerak, ba, Euskal Herriko baserritan lehen ibiltzen zan jantzie izaten zan, ta horik hemen etxe guztittan ta. Jantzikin problema haundiik ez gendun izaten, horkoa eitteko.

31. Gabiriatik kanpo emanaldiak eta irratsaioko pasartea

- **Erref:** GAB-006/047
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 01:18:41. **Bukatu:** 01:20:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

<p>Gabiriatik kanpo ere joaten ziren antzezlanak erakustera. Behin Donostiara joan ziren pasarte bat grabatzera Radio San Sebasti´nen: orduan astelehenetan irratsaio bat egoten zen euskaraz, eta han emateko grabatu zuten pasartea.</p>

Transkripzioa

-Sekula herritik kanpora ein zenduen antzerkirik?

-Bai. Zumarragan'e bai, izan giñen. Legazpin'e bai, Zegaman'e bai, Legorretan'e bai. Besteik ez det uste izan geanik. Zumarraga, Legazpi, Zegama, Legorreta. Beste iñoa ez det uste jun giñenik. Jun giñen pasarte bat ematea Donostira. Garai haitan, `Garai Usaia'n pasarte txiki bat ematea. Radio San Sebastian zeon ordun. Eta, astelehenetan, illuntzaan, ordu laurden bat eo, euskeraz emateko zea zeon. Ta han sartzeko pasarte bat grabatzea Donostiaa, Radio San Sebastianea, jai goiz baten jun giñan. Ez danak, e! Jun giñen "los elegidos" —pasarte bat zan—, ein behar gendunak, dozena erdin bat eo. Ondo goatzen naiz han nola egon giñan Radio San Sebastianen grabatzen.

-Aktore onenan pare.

-Bai, bai. Ordun ez zeon euskeraz iñundik aitzeik ezer orde.

-Eta, ordun, irratsaio bat egoten zan, tarte bat egoten zan euskaraz?

-Astelehenetan, astelehen illuntzaan. Baiño ordu erdin bat eo hola izaten zan.

-Gogon daukezu ze izen zun irratsaio harek?

-Ez dakit, ez naiz gogoratzen. Ez naiz gogoratzen horrekin. Han tartetxo baten, han grabau ta han ematen zuen, han eman zuen hori. Gero, jendek aittu eitten zon ordun, gaur ikusi eitten dittuzu gauza danak telebixiotik, baiño ordun radiotik hori eman zuen, ta hure, ba, leku askotan. Danen'e ez zan aitzen ondo. Keba! Nola aittuko zan ba! Han izan giñen hori eitten.

32. Antzerki-taldearen izena eta garraibidea

- **Erref:** GAB-006/049
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 01:21:04. **Bukatu:** 01:22:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

<p>Antzerki-taldeak ez zuen izen berezirik. Kanpora antzezlanak ematera joan behar izaten zutenean, autobusez joaten ziren, Apaolaza autobusean.</p>

Transkripzioa

-Nikolas, nola izena zun zuen antzerki taldek?

-Harek ez zon izenik!

-Izango zon izenen bat...

-Ez, ez.

-Herritik kanpora juten zinetenen, ze izenekin irteten zineten?

-Gabiriko taldea, Gabiriko talde bat dator, eta kitto. Harek izen espezialik ez zon izan, ez gendun izan. Keba! Garai hartan ez zeon holako beharrik. Gaur izan balitz bai. Ta hala gastatu zan gero hura.

-Eta Nikolas, nola juten ziñeten inguruko herritara antzerkia itera jun behar zenduenen?

-Autobusen.

-Baiña autobusa hortako propio jarritakoa, ala...?

-Bai, autobuse, ez dakit zeiniek pagatzen zon. Jun behar zon herrikok eo,

harek. Taldea jun behar zon herriko pagatzen zon. Hemen bertan zeon autobuse, Apaolaza, autobus zea batekin. Han juten giñen. Legorretaa ta, Zegamaa ta, Legazpia ta. Autobusen, bai, bai, bai. Danak batea, autobus baten. Hala juten giñen. Klaro, ez genduken kotxeik gaur bezela ta, hala jun behar. Bestela nola jungo ziñen?

33. 'Garro-usaina' antzezlanaren buruan oraindik

- **Erref:** GAB-006/051
- **Iraupena:** 0:10:30. **Hasi:** 01:23:16. **Bukatu:** 01:33:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

<p>Garro-usaina antzezlaneko zati bat gogoan du.

Antzezlanaren testuingurua azaltzen du, eta elkarrizketa buruz errezitatzen du.</p>

Transkripzioa

-Gogoan daukezu ein zendun obran bateko pusketan bat?

-Jo, pusketak, pusketak... `Garro Usaia´ horrek, oso ona zan hori, eta bi... Klaro, ni zaharra naiz, Joanes. Ordun, ba, ia etxeko zaharra, zahartuta zan, ta beste lagun bat, Joanes horrek beste lagun bat zon Agustin izena zona. Ta gaztetan alkarrekin asko trato haundik eukitzen zuena. Baiño Agustin hori ez zan... Joanes hau... Oñatiko zean dao hau einda, Oñatiko inguruti dao, Arantzazua bittarten, Azkarraga ta, baserrik ta orduko izenak. Hor dao einda. Baiño Agustin hori bizi zan beste toki baten. Lagunak zian bik. Eta aizkora apustu bat zeon Oñatin, igande baten, ta aizkora apustu hortaa etorri zan Agustin hori, bere semekin. Semek'e nahi zon etorri aizkora apustu hortaa, aizkora apustu hortako jokalaria bat Joanes, beno, nere semea zan, oñatiarra. Ta bestea ez dakit ba nungoa zan. Ta, ordun, etorri zien aizkora apustu hori ikustea, Oñatia. Ta Agustin hori edadekoa zan, bazekin nun bizi zan bere lagun hori, zaharra, Joanes, han Oñatiko baserrin baten, Zabaleta baserrie, Zabaleta izena. Harek aizkora apustua ikusteko gogoik ez zon eukiko, hango giro hure ez zitzaion zeatzen, hori hala azaltzen da obran azaltzen da hori. Harek, bestek han aizkora apustue ikusten geldittu, eta Zabaleta baserria jun zan Joanes horri bixitatzea. Ta bik han topo eitten due, ta elkarrizketa hure da ona, earra, oso. Han bik alkartzen die.

-Gogon daukezu?

-Bai.

-Nola zan?

-Gogon dauket. Han bik alkartzen die. Eta, jun da hautza, bere Joanes horren baserrira Agustin hori, ta atea jo dio, ta han zabalduko zon, zeatik bestek gaiñantzeko etxeko gehienak aizkora apustua junda, zeati bere semea baizan jokatzen zona aizkora apustua. Bestea kanpokoa zan, baiño, hola. Eta esaten dio Agustin horrek, junda: "Egunon", esaten dio. Ta bestek, "egunon", atzea kontestatzen dio. "Ez al nazu ezautzen?", Agustinek esaten dio. "Ez", ez zon ezautzen Joanesek Agustin. "Oain dala hogeita hamar urte alkarrekin jan genduan arrautzaopilla Urkiolan", esan zion. "Baleike", esaten dio bestek, "baleike", baiño ez zan konturatzen. "Bai, bai. Eta gaiñea, esango dizut, Bergarako azokan saldu ziazun esne-

behi eder bat". "Aaaaa", ordun akordatzen da, "bai, zu Agustin zea!", esaten dio. "Bai". "Elgetan jaioa". "Bai, Elgetan jaioa, baiño igarotako -ez dakit zenbat urte esaten dion— Arriolan bizi naizena", esaten dio. "Aspaldiko Agustin", esaten dio ordun, "urteak dira ikusi ez gerala ta". "Esan det hogeita hamar". Hogeita hamar urte arrautza-opilla jan zuela Urkiolan. "Geroztik ez al gea iñun ikusi?", bestek galdetzen dio. "Ez, geroztik nik ez zaittut iñun begiz ikusi. Lehenago bai, lehenago sarri ikusi ohi giñan". Ta bestek esaten dio ordun: "Bai hoixe, bai hoixe. Zuk eta nik, Azurtzako Melitonek eta Irigoieneko Kaxparrek, alkar billatzen bagendekian", esaten dio. "Bai. Zer egin zuen gizon haek?". "Hil zian", esaten dio ordun bestek; "hil ziran. Bai, baita Zezeagako Toribio eta Eguzkitzako Txomin ere". Bestek esaten dio ordun, Joanesek esaten dio ordun: "Gizon zintzoak, gizon leialak". Eta bestek esaten dio: "Bai, gaurko egunean gutxi bezelakoak". Eta Joanesek esaten dio: "Gaurkoak ere, gaurkoak ere, gure ondorengoak dira", esaten dio. Ta Agustinek esaten dio: "Bai, gure ondorengoak, baina gugandik etenak. Adarrak, adar igarrak dirudite". Eta... dios, nola zan. "Gugandik etenak, zugaitzetatik ebakitako adarrak dirudite. Adar igarrak. Galeran dijoatz euskaldunak, eta bazter hauek berak ere galeran dijoatzela derizkiot". Hori esaten dio Agustinek Joanesi, "galeran dijoatzela derizkiot". "Aramaionara ezkondata daukaten seme batek ekarri nau. Aizkora apustura etorri da. Ez al da zure semea hemengo jokalaria?", galdetzen dio Joanesi, ta bestek esaten dio ordun: "Bai, nigandik etendako adar bat". Ta ordun esaten dio, Agustinek ematen dion esplikazioa: "Bai, jende asko bildu da hor herrian, bata dala, bestea dala. Ezagun asko ikusi det, baiño alkarrentzako oso hitz hotzak izan ditugu, ta ez det gogorik izan han gelditzeko, eta baztar hauek ikusiaz, zuri bixita bat egitera etorri naiz". "Eskerrik asko", esaten dio, "eskerrik asko, Agustin, eskerrik asko". "Horra ba", esaten dio ordun Joanesek, "horra ba. Neroni ere zerbait gogoratzen ari nitzan. Eta zure iritziak nere iritziaren atal bat dirudi. Gu zaharrak gera, Agustin, nahigabetuak gaude. Ta bihotz nahigabetuak hitz garratzegiak ohi ditu. Gure gaztetako egun alaiak joan zitzaizkigun, eta egun haientzat gordetzen degu oraindik geure arimetako maitetasuna. Nork daki gure ustea ziurra dan ala ez?", esaten dio, besteak esaten dio: "Neuk dakit, eta zeuk ere jakin behar zenduke. Oraingo Euskal Herria eta nere umetakoa ez dira berdiñak. Ordukoa hobea zan", esaten dio. Bestek esaten dio: "Oraingo eguzkia ta nere umetakoa berdiña ziran. Orduko lorea eta oraingoa berdiñak, baiño gaurko liliari ez diot usairik hartzen. Gaurko eguzkiak ezin poztu nau, lurraldeak itsusiak daudela derizkiot. Gu gaude alperrik galduak, Agustin, gu!". Bestek ordun esaten dio: "Joanes, ez zera nere oihartzuna, edo ni txurikatzeagatik, zure iritziaren atalen bat barruan gordetzen didazu. Badakit gure zentzuak galduak ditugula, baiñan ez gure arimak. Aitortzen det lehengoak dirala eguzkia, loreak eta lurraldeak, baiño ezingo dezu ukatu hau ez dala lehengo Euskal Herria. Lehen, euskal usaia, garo usaia nabaritzen zan edonun. Gaur, mendietako egurats garbia ere kiratsak ez ote digu jo?", esaten dio. Bestek esaten dio: "Bai ote?". Ta, makillea dauke eskutan, ta "makilla hau eskutan daukadan bezela". Ta bestek esaten dio ordun: "Ta zeïñek kirastu du?". "Zeïñek? Danak eta danok", ematen dio han esplikazio bat, hori ez dauket gogon zein dan. "Danak eta danok. Zu pekataria esaten badakit, baiña ni pekataria ez naiz oraindik ahaztu". Ta ordun, esaten dio: "Edarki mintzatu zera, Agustin, ederki. Goazen barrura -hoi eszenarioti—, goazen barrura. Pipakada bana erreaz ta tragotxo bat hartuaz, gauza hauek hobetogo argitaratu ditzagun". Hoi zan pasarte bat, osoa. Ikaragarritzko txalok jo zien ordun. Oso ona da hori. -Txalo jotzekoa da oaindikan´e burun eukitzea hoi dana.

-Hoi dana burun dauket. Gehiao're banittun. Oso, ikaragarriko lana euki non nik hor, e!

34. Antzezlanetako euskara

- **Erref:** GAB-006/052
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 01:33:46. **Bukatu:** 01:34:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>Antzezlanak ez ziren batuan izaten, egileek idatzitako moduan baizik. Jacinto Carrasquedok moldatu zuen `Garo usaina´;</p>

Transkripzioa

-Eta batuan izaten zien denak?
-Keba! Keba! Ez zeon batuik ordun.
-Hemengo hizketan? Gabiriko hizkeran jarritakok zien?
-Ez, ez, ez. Hori egillek eindako zea zan, egillek, berak egillek. Hori, lehen esan dizut, `Garoa´ nobelea euskerazkoa, irakurrita daukezun ez dakit, ez zendun irakurriko zuk, ezta? Ba irakurri behar zendun. Berdin da. `Garoa´. Hortik etaa zuen hori, Donostiko zea bat zan. Jazinto Carrasquedo zan horren autorea, `Garo Usaia´ ein zona. Handik etaatakoa da. Harek euskerautako, harek euskeraz etaatako... Guk ez giñun ezer'e kanbiatu hori, hola inda dao hori. Baiño euskera, garai hartan... batua gero etorri zan. Hori herri euskeran dao. Baiño horrek dauzke esaldik, buenoo, ikaragarrik.

35. Kanturako zaletasun handia izan da Gabirian

- **Erref:** GAB-006/054
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 01:35:45. **Bukatu:** 01:37:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Musika asko gustatu izan zaio beti Nikolasi. Kanturako joera handia zegoen lehen Gabirian. Tabernan elkartzen zirenean, kantatu egiten zuten.</p>

Transkripzioa

-Nikolas, antzerkigintzatikan aparte, nik badakit kantuak-eta ere asko gustatzen zaizkizula.
-Kantue, kantue asko gustau zat nei, bai. Nik hamaika aldiz pentsatu det, ta esan'e ein det nik gaiñea, ni gaurkoa izan balin banitz, ni musikoa o hola izango nitzen. Ona o txarra.

-Baiño musikoa.
 -Musikoa izango nitzen. Ni bai, hala izango nitzan. Zenbat gustau zatan. Baiña... Bai, hemen'e kantue elizan ta holakotan...
 -Bazeon hemen joera kantun aritzeko?
 -E?
 -Kanturako joera bazenduen?
 -Haundie, haundie. Bai, bai, bai. Asko. Oaiñ ez, oaiñ ez da iñor...
 -Nun aritzen ziñeten kantun? Elizan, esan dezu.
 -Bueno, elizan... elizako gauzak, baiño... tabernan ta juntautako garaien ta zenbat aldiz kantatu. Ordun dana hola zan, kantue zan ordun. Oso ondo ez, baiño. Geo, hemen soiñujolea zan, bere semea oain Donostin bizi da, zea, Arzelus, Pepe, horren aitte zan soiñujolea, ta harek eman ziun guri zea horik. Geo hue hil ein zan, kantzerrakin hil zan. Baiño Gabirin beti kantuako ta. Oain ez, oain e... Oain eskolan ta hor erakusten die ta hor ibiltzen die gauza horik baiño...
 -Ordun berezkoa.
 -Ordun berezkoa zan, buenoo, alkarreana juntau ta.

36. Bertsolariak familian bai, baina bera ez

- **Erref:** GAB-006/055
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 01:37:08. **Bukatu:** 01:38:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Bertsotarako ez du inoiz izan taxu handirik; bai, ordea, aitag. Luzio Gabiria bertsolaria aitaren osaba zuen.</p>

Transkripzioa

-Bertsotan ta?
 -Bertsotan sekula ez det izan tajuik, ez. Nere aitte zana oso politte emen zala oso... ona zala aittu izandu det. Nik entzun nion behin o behin, baiño ez zan hola ibiltzen zana. Harek ba omen zon. Zuk ez zendun ezautuko, Luzio Gabiria?
 -Aitzera badauket baiño ez dakit zein zan.
 -Joxemari ezautuko dezu, Joxemari Gabiria. Aitte zan hori, Luzio. Ta Luzio Gabiria hori zan nere lehengusue. Lehengusu doblek giñen gaiñea, aitte ta ama, ta aitte ta ama kruzau ein zien. Nere aitte ta Luzio zanan ama anai-arrebak zien. Luzio bea bertsotan eitten ondo, politte eitten zon Luzio Gabiria. Gero, bere berso mundu hortan zeon. Ta nik hari entzun izandu nion, zeati bere aitte pontekoa zon nere aitte hori, bere osaba aitte pontekoa zon. Ta haek, nola bere osaba bertsotako hue, bazola harek ona ta. Haen zean bat euko zon. Nik bat'e ez det izan bertsoik, ideiaik arrastoik'e ez.

37. Gabonetako kanta abesten

- **Erref:** GAB-006/057
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 01:38:31. **Bukatu:** 01:40:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Gabon katak

Laburpena:

<p>Gabonetako katak asko gustatu izan zaizkio Nikolasi. Kantu haietako bat abesten du.</p>

Transkripzioa

-Nikolas, Gabonetako kantuk-eta zuri asko gustatu izan zaizkizu.
-Gabonetan hemen'e hor'e makiña bat ibilli ein gendun, Gabonetan'e.
Jesuusss. Eta kantuz, kantuk eta. Orduko kantu zahar bat. Oaiñ'e, hemen
etorri zitan, etorri zitan eo, ez, ez, Gabirin sozidaden izango giñen gaiñea,
nola zan ta hori ta. Hoi kantatzen due hemen kanta hure, zea, guk
kantatzen gendun hura.
-Zer kantu zan? Atrebentzie ez bada.

-
"Goazen, goazen guztiok
bertatik Belena,
adoratu dezagun,
Jesus haurtxo jaio dana".

Holako modutsukoa zan. Gero... Bi estrofa dittu.

"Jose eta Maria,
Belengo herrian,
ostaturik eziñik,
gauaren erdian.

Argiturik honela..."

Ez, baiño hori baiño lehenao dauke beste bat, oso zea dauke horrek.

-Eta, gaiñantzean, koplak edo.
-Oain abesten due hori. Hemen, bastante, oain gaiñea zea bat dau bizitzea
etorritta, Barriola, Xabier Barriola, musikoa, lehen Legazpiko koru baten
diretore ta organista ta... oain bizi da hemen, hemen pixue erosi zon ta,
hori ibiltzen da oain hemen dirijitzen. Bi aldiz eo eon izan da hemen honea
etorritta, lehenaoko holako kanta zahar batzuk jasotzea.

38. Gabon-eskean ateratzen zirenekoa

- **Erref:** GAB-006/058
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 01:40:10. **Bukatu:** 01:42:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Gabon-eskean ateratzen ziren lehen; gazte-kuadrillak izaten ziren, 20 urtetik beherakoak. Egun guztian izaten zen. Behin herriko soinu-jotzaile batek egindako meritua kontatzen du.</p>

Transkripzioa

-Gabon esken ateratzen ziñeten?

-Gabon esken ateatzen giñan! Oain'e hemen koadrillak ibiltzen die, bi o hiru o lau o... koadrillak. Baiño haundik! Oain automobilletan ibiltzen die ta.

-Gazte koadrilak izaten zineten?

-Gaztea, gu gazte, bai. Baiño hogeitertiet azpira bittarten, hogeitertiet gorakok ya, gutxi.

-Ze izaten zan, egun guztin?

-Egun guztin. Goizen hasi. Behin, gogoratzen naiz, egunez ez giñen hasi, bazkalondo baten hasi nitzen, hasi giñen. Lehen esan diana, gendun soñujotzaillea Arzelus hori, Arzelus oain semea dauke horrek ona. Hue bea hil zan. Ta harek erakutsitta harek soñukin, ta haekin irten gendun. Ta harek Beasaingo fabrika lana eitten zon, ta Gabon egune, ta goizen lana eitten zan, ordubik arte eo. Goizen lana ein, hue handik etorri, ta ez dakit ba nik, ordubik, ordubittardik alden, hemen, Kamiñokutza esaten diu guk, — kamiñoa hor, kurutzea, hor gora hartzen da kurba Gabiria juteko; besteak aurrea segitzen do ta horrek do Kamiñokutze, Kurutze. Hor juntatu giñen. Bere nazimentue zeon hemen, gu baiño lehenagokok hemen eindakoa zan, hemen Arrondonekok eta horik einda, gerra aurretik einda. Oso nazimentu earra. Eskutan ebalu behar zon, baiño, bere baterie ta guzti argik eitteko, gauen ta, gaueako. Katxarro horrekin hor irten ordubik alden ta hemendik goora, han gora Santa Mariña, oiñez hor beheti gora. Han hasi, Aztiriko barrio hure pasatu, gero hor beste aldea, lehen esan diana, nere aman jaiotetxea, Behekoetxe, handik hortik, horik danak, hok danak pasatu, hor goi... herri guztie, ta gauen hamabittan pasiotarran elizaa, mezetaa, gabon gauen, rekorrido horik danak einda. Ze giroa, ze giroa. Dana oiñez. Lokatzea, ze egoaldi zan, argikin, linternak... Halaxe gustoa ibili! Gu hola ibiltzen giñen. Gaur automobilletan ibiltzen die dana ta ondo ibiltzen da.

-Ordun hanka onak zittuzuen ta. Beharko euki, gaiña, hanka onak!

-Bai, hoixe onak. Oain ez dauzket oso onak, baiño ordun bai, ordun bai makiña bat ibilli eindakoa naiz. Ta, hola.

39. Politena Tolosako euskara

- **Erref:** GAB-006/059
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 01:42:59. **Bukatu:** 01:44:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Iritziak

Laburpena:

<p>Tolosako euskara gustatzen zaio gehien. Goierriko inguruko herrietan kanpoko jendea etorri izanak kalte egin dio euskarari.</p>

Transkripzioa

-Nikolas, bukatzeko galdera bat eingo dizut. Nungo euskera da zuretzat politena? Nungo euskera gustatzen zaizu gehiena?

-Nei, euskerea? Tolosakoa. Dudaik be. Oaintxen'e Tolosan ondo hitz eitten da, e. Joeee. Gozoa. Neetzako bai.

-Zure edade inguruko gehienak esaten dezue beti Tolosa.

-Bai? Esaten due?

-Zeatik da hori?

-Hala izan da! Hala izan da! Ez zazu konparatu Beasain Tolosakin, e! Ordizi're ez, Legazpi're ez, ta Zumarraga're ez. Beasain'e, euskerakin ibiltzeko txarra izan da, e! Kanpotik etorritako jende hori.

-Fabrika haundira etorritako jende asko're bai ta...

-Bai. Ta Zumarraga ta hori. Ta zenbat lotsa hartu deu guk Beasaiñea jun ta, enkargun batea jundako garaien ta, joe, erderaz zean, erderaz jakin ez galdetzen. Lotsatu e! Lotsatu. Ta hori txarra da e! Tolosako euskerea gozoa izan da. Neetzako bai.

40. 3 kilo babarrunen ordeztu, litro bat olio

- **Erref:** GAB-006/060
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 01:44:04. **Bukatu:** 01:48:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Amona gaixo zegoenean, bisitan zetozenei amak zerbait eman nahi izaten zien. Horregatik, behin amak Nikolas Legazpira bidali zuen gauetz olio bila: 3 kilo babarrunen trukean litro bat olio lortu zuen.</p>

Transkripzioa

-Zea bat badauket, hauxe esan behar dizut /beaizut/, zeati ondo dau jakittea. Ba izango zan hori're, milla beatzireun ta berrogeta bi inguru hortan. Lehen esan dizuan amona, hemen bizi zan, ta laurogei urteti gora zeuzken ordun, eta behintzat udaitzenen beti, hola, garai jakin xamar baten, izaten zon bere gaizkialdixoa izaten zon. Ordun, behintzat, urte hortan hemen, ba, ordun'e gaixotu eo zerbait ta ohian. Ta, klaro, bere alabak eta kastak eta bazeuzken kanpon, ta danak etorri eitten zien bixitatzea, [...]. Gauza gutxi zeon zeatzeko, ordun ezer ez zan eoten, baiño zerbait eskiñi eo ein behar ba etortzen zanai! Ta zerbait behar, ta ama, nere ama zana... ta udatzen baten, urrie izango zan, bai, oktubre azken aldea eo hola zan, izango zan. Ia illuntzen hasteko zean zeon. Ta amak esan zian: "Hi, Legazpia jun behar dek", esan zian. "Legazpia ni oain? Jo, ia illuntzea dijo". "Bai, jun behar dek, zeati olioik ez zeok". Dana razionauta zeon, ta ez zeon ezer. "Olioik ez zeok, eta jun behar dek Legazpira, ta Legazpiko Ixidrane". Ixidrane zan denda bat. Ta lehen esan dizut, nere ama ostiralero juten zan hautza merkadua. Ta, ordun, enkarguk ta behar zittunak denda hortatik ekartzen zittun. Amistade haundie zeukan han. Ta, "ze ein behar det ba nik?". "Eaman behar dittuk hiru kilo babarrun". Hiru kilo babarrun. Hiru kilo babarrun die lakarie. Lakarie da. Entzunda eongo zea, lakarie. Lakarie, neurrie, hoi pasatzen da ba, hue're gauza hue...

-Lauki itxurakoa izaten zan, ezta?

-Bai, koadratu bat izaten zan, ta lakarie eukitzen zon hiru kilo hartzen zittuna. Eta, gero, beste aldeti eukitzen zon kiloa hartzen zona. Beste aldeti, neurrie. Kiloa ta hiru kilo. Ta hiru kilo izaten zan lakarie. Ta, ordun, hiru kilo babarrun eman zian amak boltsan. "Jun hai Ixidrane". Ta litroko olio ontzie, ta hiru kilon ordeztu litro olio bueltan. Dirukin ez zon balio, estraperloko gauzea zan ta. Hiru kilo babarrun, litro olio, ekarri non, harren ordeztu etxea. Aber, gaur litro oliok zenbat balio don, eta babarruna

kilok zenbat balio don. Etaa kontuk. Babarrunak ez dakit zenbait eingo don, bi milla pezta eingo dittu, igual, e?

-Ez dakit zenbat izango dan.

-Ez dakizu zuk'e. Nik'e ez dakit seguroik. Hor ibilliko da, e, hamabi euro, nunbait, uste det, hola. Pentsaizu, ba, zenbat zien hiru kilo babarrunak gaurko prezion zenbat zien; sei milla pezta litro olio. Diferentzie. Ordun hola zeon gauzak. Jo, hoi ez zat ahazten. Ni hemendik hara juteako, oiñez, illunpetan gero hor. Argie izango non, farola o zerbait. Hautza jun, ez non gaiñea nik ezautu're eitten bea. Han, "ze, zer da?" ta, hola ta hola, holako ta holakok bialdu nau honutza, honekin zean, ta "a, bai, bai, bai". Hartu babarrunak eta han barrua, denda barrua. Litro ontzie bete olio, ta atzea "hamen ba, hemen daukezu" ta segi, "vuelta a casa". Holako zenbat gauza? Bueno!

41. Bizimoduaren aldaketa

- **Erref:** GAB-006/061
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 01:48:02. **Bukatu:** 01:49:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Bizimodu gogorra izan arren, gustura bizi ziren, besterik zegoela pentsatu ere ez baitzuten egiten. Autoa erabiliko zuenik ez luke sinetsiko Nikolasek garai hartan.</p>

Transkripzioa

-Bizimodu gogorra ordukoa.

-Bai, bai, bai. Pasa zien. Bueno, hala're gustoa ibiltzen giñen, e!

-Errazago konformatuu, gutxiagokin.

-Besteik zanik pentsatu're ez gendun eitten. Hala zalakon.

-Ez zenduen pentsauko gaurko bizimodue izango zanik, garai hartan.

-Nola pentsatuko non ba? Bizikletaik'e ez genduken ta! Bizikletea bai, ia bagendun bizikletea, baiño gerotxo, gerotxo hura're. Nola pentsatu nik ordun... ni kotxekin ibilli behar nola neonek, hemen, esan bazizuen, "ixilik eon hai!". Ta kotxekin zenbat beaje ein dittuan nik. Ostatur gendela're...

Lehen esan dizuan Luzio Gabiria andrekin, ta neu andrekin, hamazazpi-hemezortzi egun hor pasau giñutzen, hemendio zeara jun, Malagaa jun, Malagan han ezaun bat genduken, hemengoa. Han, Malagati Granada hortik buelta guztie einda. Neuk ebali non kotxea. Pentsaizu! Ta gero pentsatzen jartzen naiz ta, "ni nola ibilli nittuan han hola?". Gaur ia, ez. Gaur ia ez det balio. Hemen ibiltzeko bai, hemen ibiltzen naiz; Beasaiña, Ordizia, Leazpia... hola, kotxekin ibiltzeko. Baiño nei garai hartan esan balie hori, "ixilik eon hai, tontokerik esaten ai haiz ta!" esango nion. Egie da, egie da ta. Nola sinistuko dezu ba, ze kanbiok ein dittun? Bueno!

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com